



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2017ko apirilaren 6a

56. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Irunberriko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateari buruzko 2015eko ekitaldiko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Irunberriko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateari buruzko 2015eko ekitaldiko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko otsailaren 27an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak Irunberriko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateari buruzko 2015eko ekitaldiko fiskalizazio txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 205. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona hau ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2017ko otsailaren 27an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Irunberriko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateari buruzko 2015eko ekitaldiko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

I. Sarrera (3. or.).

II. Iritzia (6. or.).

II.1. 2015eko kontu orokorrari buruzko auditoria finantzarioko iritzia (7. or.).

II.2. Legezketasuna betetzearen fiskalizazioari buruzko iritzia (8. or.).

III. Irunberriko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen/San Isidro Egoitzaren 2015eko kontu orokorraren laburpena (9. or.).

III.1. 2015eko aurrekontu bateratuaren betetzearen egoera-orria (9. or.).

III.2. 2015eko aurrekontu-emaizta (10. or.).

III.3. Diruzaintza-gerakina 2015eko abenduaren 31n (10. or.).

III.4. Egoera-balantzea 2015eko abenduaren 31n (11. or.).

III.5. 2015eko emaitza ekonomikoaren kontua (11. or.).

IV. Oharrak eta gomendioak (11. or.).

IV.1. Mankomunitatearen egoera ekonomiko-finantzarioa 2015eko abenduaren 31n (12. or.).

IV.2. Aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasunaren printzipioak (13. or.).

IV.3. Alderdi orokorrak (15. or.).

IV.4. Langileak (15. or.).

IV.5. Ondasun arruntak eta zerbitzuak (18. or.).

IV.6. Diru-sarrerak (20. or.).

IV.7. Ibilgetua (22. or.).

IV.8. Beste arlo batzuk (23. or.).

IV.9. Nafarroako Gobernuaren ikusketze-jarduketak (23. or.).

IV.10. Kudeaketa-adierazleak (24. or.).

V. Amaierako laburpena (27. or.).

Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziak aurkeztutako alegazioak (28. or.).

Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziak (Eskubide Sozialetako Departamentua) aurkeztutako alegazioei Kontuen Ganberak emandako erantzuna (34. or.).

I. SARRERA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeak eskatuta, 2016ko ekainaren 13an erabaki zuen Kontuen Ganberari eskatzea Irunberriko San Isidro zahar-etxearen 2015eko kontu orokorrari buruzko fiskalizazio txostena egin zezan. Zehazki, aipatutako eskaeran Kontuen Ganberari berariaz eskatzen zitzaion honako alderdi hauek azter zitzaion:

- Kudeaketa ekonomiko eta finantzarioa.
- Langileen kontratazioa.
- Ratioen betetzea.
- Mankomunitateko lehendakariaren balizko bateraezintasuna, aldi berean egoitzako langilea baita.

Ezer baino lehen, zehaztu beharra dago egoitza horrek ez duela nortasun juridiko berekirik eta ez dela kontabilitate-entitate independentea; izan ere, Irunberriko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak ematen duen zerbitzu bakarra da. Horrenbestez, Kontuen Ganbera honek aztertu beharreko kontu orokorra mankomunitate horri dagokiona da.

Parlamentu-eskaera hau betetze aldera, Kontuen Ganberaren 2016rako urteko fiskalizazio-programan sartu zen lan hori egitea.

Kontuen Ganberak, bera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Irunberriko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen 2015eko ekitaldiko kontu orokorraren fiskalizazioa egin du. Kontu hori, funtsean, honako hauek osatzen dute: aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria, aurrekontu-emaizta, diruzaintza-gerakina, balantzea eta emaizta ekonomiko eta ondarezkoei emaitzen kontua.

Kontu orokorraren finantza-auditoriarekin batera, legezkotasuna betetzeari buruzko fiskalizazioaren plangintza egin eta bete dugu, honako honi buruzko iritzi bat eman ahal izateko: ea Mankomunitateak ekitaldian zehar egindako jarduerak eta aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta 2015eko ekitaldiko kontu orokorrean jasotako informazioa bat ote datozen, alderdi esanguratsu guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoak zaizkion arauekin.

Mankomunitateari 2015eko ekitaldian aplikatzekoa zaion arau-esparrua, funtsean, honako hauek osatuta dago: Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legea eta Aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko apirilaren 20ko 2012 Lege Organikoa (LOEPSF izenez ezagutzen dena), bai eta sektorekako araudi indarduna eta, bereziki, egoitza-arretari buruzkoa. Mankomunitateak, kontabilitate- eta aurrekontu-kudeaketarako, programa informatiko baten bitartez, 273/1998 Foru Dekretuan araututako araubide sinplifikatua aplikatzen du.

Irunberriko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea (aurrerantzean, Mankomunitatea) 1987an eratu zen, eta haren estatutuak urte horretako azaroaren 27ko 148. NAO-n argitaratu ziren. Estatutu horietan beste xede batzuk jasotzen badira ere (esate baterako, oinarrizko gizarte zerbitzuak¹), haren jarduera bakarria egoitza-arretari dagokiona da.

Zerbitzua emateko, "San Isidro" Zaharren Egoitza eta Psikogeriatrikoa sortu zuen (aurrerantzean, egoitza), Irunberrin. 1988ko uztailen hasi zen laguntza-jarduerak ematen, eta 2008an, berriz, jarduera psikogeriatrikoak ematen. Zerbitzu horiek mankomunitateak berak kudeatzen ditu, eta zuzendari bat izendatzen da haren jarduera arruntak kudeatzeko.

Honako herri hauek hartzen ditu egoitzaren lurralde-esparruak: Galoze, Itzaltzu, Irunberri, Nabazkoze, Erromantzatua, Urraulgoiti eta Urraulbeiti.

Bere estatutuen arabera, mankomunitatearen burua Irunberriko alkatea izanen da, eta batzarrak idazkaria, kontu-hartzailea eta gordailuzaina izendatuko ditu mankomunitatutako herrietan lanpostu horiek betetzen dituzten funtzionarioen artean; izendatzen ez den bitartean, idazkari

¹ Zangozako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak ematen dituen zerbitzuak.

eginkizunak Irunberriko Udaleko funtzionario batek beteko ditu. Gaur egun, udal horretako idazkariak betetzen ditu. Mankomunitateko kontu-hartzailea ez da formalki izendatu, eta estatutuek, modu orokorrean, haren eginkizunei dagokienez, indarreko araudia aipatzen dute. Bada, mankomunitatearen kontabilitate-kudeaketa kanpoan kontratatuta dago.

Halaber, honako hauek jasotzen dira: batzar orokorra edo batzarra mankomunitatearen kudeaketa organo nagusi gisa, lehendakariorde bat eta gobernu-batzorde bat.

Langileak zerbitzuari atxikitako toki entitateetako funtzionarioak eta Mankomunitateak berak kontratatutako langileak izanen dira; azken horiek inolaz ere ez dute hartuko tokiko funtzionarioaren izaera.

Jardueren finantzaketa, funtsean, egoitza-lekuen bidez lortutako diru-sarrerekin egiten da, eta, hondarreko aukera gisa, diru-laguntzen eta dohaintzen bitartez. Halaber, ezartzen da mankomunitateetako toki entitateek biztanle bakoitzeko kopuru finko bat jarriko dutela eta, kasua bada, beren herriari dagozkion erabiltzaileek sortutako defizita hartuko dutela beren gain; 2014ko eta 2015eko ekitaldian ez dago jasota mankomunitateetako entitateek ekarpenik egin dutenik.

San Isidro Egoitzaren ezaugarri nagusien artetik, honako hauek aipatuko ditugu:

- Jarduera garatzen deneko bi eraikinak –hirugarren adinerako egoitza eta zentro psikogeriatrikoa– Nafarroako Gobernuak eraiki zituen, eta 1987an eta 2002an amaitu ziren, hurrenez hurren. Funtzionamenduan egiazki 1988an hasi zen egoitza, eta psikogeriatrikoa, berriz, 2008an; hau da, eraikina amaitu eta sei urte geroago.

- Bi arreta mota eskaintzen ditu: hirugarren adinerako egoitza eta psikogeriatrikoa.

- Laguntza mota: mendekoak eta mendekoak ez direnak.

- 119 leku dauzka. Horietatik 89 egoiliarrentzat dira eta 30 psikogeriatrikorako. Gaur egun, guztira 50 leku Nafarroako Gobernuarekin itunduta daude (20 egoitzakoak eta 30 psikogeriatrikoak).

- 94 gela dauzka; horietatik 94 banakakoak dira eta 25, berriz, bikoitzak.

- Lekuen ehuneko zortzi inguru mankomunitateetako toki entitateetan errolatutako egoiliarrek betetzen dituzte; gainerakoak, berriz, Iruñeritik etorritakoak dira, funtsean.

- Zerbitzuak: erizaintza 24 orduz, kontsulta medikoa eta psikiatrikoa, fisioterapia, terapia okupazionala, gizarte langilea, sukaldea, garbategia, gimnasioa, erlijio-zerbitzua eta kapera.

Honako hauek dira Mankomunitateak 2015eko ekitaldiaren itxieran dauzkan datu ekonomiko eta aurrekontukoak:

Irunberriko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea-2015	Zenbatekoa
Aitortutako eskubideak	2.820.315
Aitortutako betebeharrak	2.897.554
Lanaldi osokoen baliokide diren langileen kopurua.	45,3

Mankomunitatearen 2015eko aurrekontua haren Batzar Orokorrak onetsi zuen 2014ko abenduaren 18an. Ez da exekuzio-oinarririk aurkeztu.

Mankomunitatearen 2014ko ekitaldiko kontu orokorra ez da auditatu. Ekitaldi horri buruzko informazioa, txosten honetan jasotakoa, informazio-hutsez ematen da.

Txostenak bost atal ditu, sarrera hau barne. Bigarreanean, auditoria finantzarioari buruzko iritzia ematen dugu, bai eta Mankomunitateak 2015eko kontu orokorrean legezkotasuna bete izanari buruzkoa ere; hirugarren atalean, kontabilitateko egoera-orri nagusien laburpen bat jaso dugu. Laugarrenean, honako hauek jaso ditugu: egoera ekonomiko eta finantzarioari buruzko oharpenak eta ondorioak; aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren helburuak betetzeari buruzko ondorioak, eta kudeaketaren beste arlo batzuei buruzko ondorioak. Horiekin batera, kudeaketa hobetzeko egokitzat jotzen ditugun gomendioak ematen ditugu. Halaber, Nafarroako Gobernuak egindako ikuskatze-jarduketari buruzko laburpen bat eta egoitzaren kudeaketa-

ren adierazle eta ratioei buruzko azterketa bat jaso ditugu. Azkenik, bosgarren atalean, mankomunitateari buruzko amaierako laburbiltze edo gogoeta bat egiten dugu.

Azterketa lana 2016ko urritik 2017ko urtarrilera bitartean egin du auditoriako bi teknikarik eta auditore batek osatutako lantalde batek, eta Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen lankidetzaren ere izan dute.

Jarduketa honen emaitzak Mankomunitateko egungo lehendakariari eta kargu horretan 2017ko urtarrilera arte egon zen pertsonari adierazi zitzaizkien, bai eta Nafarroako Gobernuaren lehendakariorde eta Eskubide Sozialetako kontseilari denari ere, kasua bazen egokitzat jotzen zituzten alegazioak aurkezteko, Nafarroako Kontuen Ganberari buruzko 19/1984 Foru Legeko 11.2 artikuluan aurreikusitakoari jarraituz. Emandako epea iraganda, Eskubide Sozialetako Departamentuko Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziaren alegazioak jaso ditugu. Txosten honi erantsi dizkiogu.

2016ko amaieran, Mankomunitatearen estatutuak aldatu dira (2016ko abenduaren 22ko NAO). Aldaketa horren honako alderdi hauek nabarmendu behar ditugu:

- Mankomunitatea "San Isidro Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea" deituko da, eta aipatutako egoitzan egonen da.

- Mankomunitateko lehendakaria Irunberriko alkatea edo alkateorde bat izan ahalko dira.

- Gobernu-batzordearen ordezkari tokiko gobernu batzorde bat egonen da.

- Mankomunitateko idazkaria eta kontu-hartzailea batzarrak izendatuko ditu mankomunitateko entitateetako edozeinetan lanpostu horietan diharduten funtzionarioen artean.

- Finantzaketari dagokionez, ezartzen da mankomunitateko enteei beren burua behartzen dutela, dauzkaten biztanle-kopuruen arabera, ekitaldi bakoitzean onetsitako betebeharrak eta zor guztien aurrean erantzutera.

- Halaber, Mankomunitateko langileen plantilla organikoaren tresna berriak jasotzen da.

- Erromantzatuko Udalak Mankomunitateko kide izateari utzi dio. Ez dago jasota udal horrek bere gain hartu behar ote dituen une honetara arte sortutako defizitak, dagokion proportzioaren arabera.

Estatutu berri hauetan ere, ez dago jasota lehendakaria Mankomunitateko batzarrak zuzenean hautatzeko aukera.

Mankomunitateko eta egoitzako langileei eskerrak ematen dizkiegu lan hau egiteko eman dигuten laguntzarengatik.

II. IRITZIA

Irunberriko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen 2015eko ekitaldiko kontu orokorraren fiskalizazioa egin dugu. Haren kontabilitatearen egoera-orriak laburbilduta jaso ditugu txosten honetako III. atalean.

MANKOMUNITATEAREN ERANTZUKIZUNA

Mankomunitateko idazkaria da kontu orokorra formulatzeko eta aurkezteko ardua duena, eta halako moduz egin behar ditu non leialki irudikatuko baitituzte Irunberriko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen aurrekontu-likidazioa, ondarea, emaitzak eta finantza-egoera, aplikatzekoa den finantza-informazio publikoari buruzko arau-esparruarekin bat. Halaber, iruzurraren edo akatsen ondoriozko ez-betetze materialetatik libre dauden kontu orokorrak egin eta aurkezteko beharrezkoa den barne kontrolaren arduraduna da.

2015eko kontu orokorra 2016ko maiatzaren 23an onetsi zuen Mankomunitateko Batzar Orokorra.

Mankomunitateak, kontu orokorra egiteko eta aurkezteko erantzukizunaz gainera, bermatu behar du kontu orokorrean islatutako jarduerak, aurrekontu- nahiz finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela aplikatzekoa den araudiarekin, eta xede horretarako beharrezkoak diren barne kontroleko sistemak ezarri behar du.

NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA

Gure erantzukizuna da iritzi bat adieraztea 2015eko kontu orokorrari buruz eta gure fiskalizazioan oinarrituta egin diren eragiketen legezkotasunari buruz. Gainera, parlamentu-eskaera kontuan hartuta, hark jasotzen dituen gainerako alderdiak aztertu dira.

Horretarako, erantzukizun hori bete dugu kanpo kontroleko erakunde publikoen fiskalizaziorako oinarritzko printzipioen arabera. Printzipio horiek eskatzen dute etikaren arloko eskakizunak bete ditzagula, bai eta fiskalizazioaren plangintza eta exekuzioa egin dezagula ere, honako helburu honekin: kontu orokorrean arrazoizko segurtasun bat lortzea eta hartan akats materialik ez egotea; eta finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa, alderdi adierazgarri guztietan, arau indardunen arabera izatea.

Fiskalizazio batek eskatzen du prozedura batzuk aplika ditzagula auditoria-ebidentzia bat lortzeko kontu orokorrean adierazitako zenbatekoei eta informazioari buruz, bai eta araudian ezarritako alderdi garrantzitsuak fiskalizatutako ekitaldian zehar betetzeari buruz ere. Hautatutako prozedurak auditorearen irizpidearen arabera dira, horren barne dela kontu orokorrean akats materialei buruzko arriskuen balorazioa, akats hori iruzurraren nahiz akatsaren ondoriozkoa denean eta legezkotasunaren ez-betetze aipagarrien ondoriozkoa denean ere. Arriskuari buruzko balorazio horiek egiterakoan, auditoreak barne kontrola hartzen du kontuan –entitateak kontu orokorra egin dezan eta legezkotasuna betetzen dela bermatzeko garrantzitsua baita– inguruabarren arabera auditoria prozedura egokiak diseinatze aldera, eta ez entitatearen barne kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko xedez. Auditoria batek barne biltzen du, era berean, aplikatutako kontabilitate-politiken egokitasuna eta zuzendaritzak egindako kontabilitate-estimazioen arrazoizkotasuna, bai eta kontu orokorraren aurkezpena ere, oro har.

Gure ustez, lortu dugun auditoria-ebidentziak behar adinako oinarria eta oinarri egokia jasotzen du gure iritzia funtsatzeko.

II.1. 2015eko KONTU OROKORRARI BURUZKO AUDITORIA FINANTZARIOKO IRITZIA

IRITZI FINANTZARIOAREN OINARRIA, SALBUESPENEKIN

a) Ez dago jasota Mankomunitatearen eta Nafarroako Gobernuak erabilpenerako hari lagatako ondasunen inbentariarik dagoenik.

b) Gastuetarako kreditu-muga ez da errespetatzen, ez orokorrean, ezta, zehazki, 1. kapituluaren ere.

c) Aurrekontu-egozpen oker batzuk detektatu dira: gastuen kapitulu eta partidetan eta, bereziki, diru-sarreraren partidetan eragina dute.

AUDITORIA FINANTZARIOKO IRITZIA, SALBUESPENEKIN.

Gure iritzian, a) lerrokadan azaldutako norainokoaren mugaren balizko eraginengatik eta "Iritziaren oinarria, salbuespenekin" ataleko b) eta c) lerroketan azaldutako egitateen balizko eraginengatik ez bada, erantsitako kontu orokorrak irudi zehatza erakusten du alderdi esanguratsu guztietan, Mankomunitatearen ondareari, gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioari eta 2015eko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez Halaber, haren emaitza ekonomiko eta aurrekontukoak islatzen ditu, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkionak, aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraituz betiere.

AZPIMARRA-LERROKADA

Auditoria finantzarioko gure iritzian eraginik izan ez badu ere, arreta deitu nahi dugu Mankomunitateak 2015eko abenduaren 31n daukan egoera ekonomiko-finantzario ahula dela eta. Izan ere, ahulezia horren erakusgarri dira gastu orokorretarako diruzaintza-gerakin negatiboa izatea, aurrezki gordin eta garbi negatiboak izatea, funts bereki negatiboak izatea, hornitzaileei ordaintzeko garaian atzerapen aipagarria izatea eta finantza-zorpetzerik hartzeko legezko ezintasun eta ezintasun ekonomikoa izatea.

BESTE GAI GARRANTZITSU BATZUEI BURUZKO LERROKADA

Ez da formalki dokumentatu Nafarroako Gobernuak egoitzaren bi eraikinen erabilera eta kudeaketa Mankomunitateari laga izana, eta ez dira zehaztu, ezta ere, alde bakoitzak zein betebeharrak dituen mantentze-lanetan eta berrezarpen-inbertsioetan, ez eta haien finantzaketan ere. Egoera horrek, dakarren segurtasun juridiko ezaz gainera, eragina izan dezake Mankomunitatearen egoera finantzarioan.

II.2. LEGEZKOTASUNA BETETZEAREN FISKALIZAZIOARI BURUZKO IRITZIA

BETETZEARI BURUZKO AURKAKO IRITZIAREN OINARRIA

a) Zenbait langilek Mankomunitateko enplegu finko edo mugagabea lortu dute Funtzio Publikoaren Estatutuan aurreikusitako sarrera-prozedurei jarraitu gabe.

b) Aztertutako laguntza- eta hornidura-kontratuetan, zabal gainditu da haien indarraldiaren epea.

c) Hornitzaile nagusiei egindako ordainketak zabal gainditzen du legedi indardunean ezarritako legezko epea.

d) Ez dira aplikatu Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen 230. artikuluan diruzaintza-gerakin negatiboak ezeztatzeko ezarritako mekanismoak.

e) Mankomunitateak 2015ean ez du bete aurrekontu-egonkortasunaren printzipioa, kontabilitate nazionaleko terminoetan finantzaketako edo defiziteko beharrianak sortu baititu.

f) Aktetan ez daude jasota Mankomunitateko batzarrak hartutako erabakiak.

LEGEZKOTASUNA BETETZEARI BURUZKO AURKAKO FISKALIZAZIO-IRITZIA

“Betetzeari buruzko aurkako iritziaren oinarria” izenburuko lerrokadan azaldu diren ez-betetzeen garrantzia dela eta, Mankomunitatearen 2015eko ekitaldiko kontu orokorrean jasotako jarduerak, aurrekontu-eragiketak, finantza-eragiketak eta informazioa ez datoz bat funts publikoen kudeaketari aplikatzekoa zaion araudiarekin.

III. IRUNBERRIKO GIZARTE ZERBITZUEN MANKOMUNITATEAREN/SAN ISIDRO EGOITZAREN 2015eko KONTU OROKORRAREN LABURPENA

III.1. 2015eko AURREKONTU BATERATUAREN BETETZEAREN EGOERA-ORRIA

Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldaketa	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako betebeharrak	Betetakoa (%)	Ordainketak	% Ordainketak
1. Langile-gastuak	1.688.600	0	1.688.600	1.828.357	108	1.792.017	98
2. Ondasun arruntak eta zerbitzuak	1.142.600	0	1.142.600	1.065.237	93	796.042	75
3. Finantza-gastuak	0	0	0	2.911	-	2.911	100
4. Transferentzia arruntak	1.900	0	1.900	1.048	55	1.048	100
Guztira	2.833.100	0	2.833.100	2.897.554	102	2.592.018	89

Diru-sarrerak kapitulu ekonomikoen arabera

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Alda- keta	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako eskubideak	Beteta- koa (%)	Kobrantzak	% Kobrantzak
3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	2.831.000	0	2.831.000	2.820.314	100	2.663.359	94
4. Transferentzia arruntak	2.000	0	2.000	0	0	0	0
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	100	0	100	1	1	1	100
Guztira	2.833.100	0	2.833.100	2.820.315	99	2.663.360	94

III.2. 2015eko AURREKONTU-EMAITZA

Kontzeptua	2014ko ekitaldia	2015eko ekitaldia
+ Aitortutako eskubideak	2.731.328	2.820.315
- Aitortutako betebeharrak	2.815.058	2.897.554
= Aurrekontu-emaiza	-83.730	-77.239
Doikuntzak	0	0
- Finantzaketaren desbideratze positiboak		
+ Finantzaketaren desbideratze negatiboak		
+ Diruzaintza-gerakinarekin finantzatutako gastuak		
+ Merkataritzako eragiketen emaitza		
Aurrekontu-emaiza doitua	-83.730	-77.239

III.3. DIRUZAINZA-GERAKINA 2015eko ABENDUAREN 31n

Kontzeptua	2014ko ekitaldia	2015eko ekitaldia
(+) Kobratzeko dauden eskubideak	112.332	186.416
(+) Diru-sarrerak: Aurtengo ekitaldia	68.723	156.954
(+) Diru-sarrerak: Itxitako ekitaldiak	36.072	32.776
(+) Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	7.537	27.654
(-) Bilketa zaileko eskubideak	0	30.968
(-) Ordaintzeko dauden betebeharrak	421.832	574.929
(+) Gastuen aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	393.693	305.536
(+) Gastuen aurrekontua: Itxitako ekitaldiak	0	0
(+) Aurrekontuz kanpoko gastuak	28.139	269.392
(+) Diruzaintzako funts likidoak	151.300	122.106
(+) Finantzaketaren desbideratze metatu negatiboak	0	0
Diruzaintza-gerakina, guztira	-158.200	-266.407
Diruzaintza-gerakina, finantzaketa atxikia duten gastuak direla-eta	0	0
Baliabide atxikien diruzaintza-gerakina	0	0
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	-158.200	-266.407

III.4. EGOERA-BALANTZEA 2015eko ABENDUAREN 31n

Aktiboa

Deskribapena	2014	2015
A Ibilgetua	0	0
C Zirkulatuzailea	263.632	339.490
7 Zordunak, itxitako aurrekontuak, aurrekontuez kanpokoak	43.609	60.430
8 Aurrekontuko zordunak	68.723	156.954
9 Finantza-kontuak	151.300	122.106
Aktiboa, guztira	263.632	339.490

Garbia eta pasiboa

Deskribapena	2014	2015
A Funts berekiak	-158.200	-235.439
1 Ondarea eta erreserbak	-74.470	-158.200
2 Entregaturiko ondasun eta eskubideak	0	0
3 Ekitaldiko emaitza ekonomikoa	-83.730	-77.239
C Epe luzeko zorrak	0	0
D Epe laburreko zorrak	421.832	574.929
5 Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuez kanpokoak	28.139	269.393
6 Aurrekontuko hartzekodunak	393.693	305.536
Garbia eta pasiboa, guztira	263.632	339.490

III.5. 2015eko EMAITZA EKONOMIKOAREN KONTUA

Zor	2014	2015	Hartzeko	2014	2015
Deskribapena			Deskribapena		
61 Langile-gastuak	1.698.157	1.828.357	70 Salmentak	2.731.311	2.820.314
62 Finantza-gastuak	0	2.911	71 Ondasunaren eta enpresaren errenta	17	1
64 Lanak, zuzkidurak eta kanpoko zerbitzuak	1.115.852	1.065.237	72 Produkzioari eta inportazioari lotutako tributuoak	0	0
67 Transferentzia arruntak	1.048	1.048	73 Ohiko zergak	0	0
68 Kapital-transferentziak	0	0	76 Transferentzia arruntak	0	0
69 Kalkulatutako gastuak	0	0	77 Kapitalaren gaineko zergak	0	0
D80 Ekitaldiko emaitza negatibo arrunta	-83.730	-77.239	H80 Ekitaldiko emaitza ekonomiko positiboa	0	0
D82 Inbertsioen salmentarengatiko galerak eta aparteko bestelako galerak	0	0	H82 Inbertsioen besterentzearengatiko irabaziak	0	0
D83 Finantza aktiboen salmentaren galerak	0	0	H83 Finantza aktiboen salmentaren irabaziak	0	0
D84 Bajak eta itxitako aurrekontuen deuseztapenak	0	0	H84 Altak eta preskripzioak, itxitako aurrekontuak	0	0
D89 Ekitaldiko emaitza ekonomiko negatiboa	-83.730	-77.239	H89 Ekitaldiko emaitza ekonomiko positiboa	0	0

IV. OHARRAK ETA GOMENDIOAK

Egindako fiskalizazioaren atal gisa, ondoren ohar, iruzkin eta gomendio batzuk gehitu ditugu, bai eta Ganbera honen ustez txosten honen hartzaile eta erabiltzaileentzat interesgarri gerta daitekeen informazio gehigarri bat ere. Halaber, fiskalizazio-txostenaren gaineko iritzieren salbuespenei buruzko informazio xehea gehitu da.

IV.1. MANKOMUNITATEAREN EGOERA EKONOMIKO-FINANTZARIOA 2015eko ABENDUAREN 31n

2015erako gastuen eta diru-sarrereren hasierako kredituak 2,83 milioi eurokoak dira. Kreditu horietan ez da aurrekontu-aldaketarik izan.

Aitortutako betebeharrak 2,90 euro egiten dute, ehuneko 102ko betetze-mailarekin eta ehuneko 89ko ordainketa-ehunekoarekin. Gastu horiek guztiak izaera arruntekoak dira. Nabarmendu beharra daukagu 1. kapituluak ehuneko 108ko betetzea duela, eta, horrenbestez, ez dela errespetatu gastuetarako kreditu-muga. Ez-betetze horrek eragina du, halaber, gastuen aurrekontuaren guztizkoan. Gastu horien ehuneko 63 langile-gastuei dagokie, eta ehuneko 37, berriz, ondasun arrunteei eta zerbitzuei.

Bestalde, aitortutako eskubideak 2,82 milioikoak dira, ehuneko 99ko betetze-mailarekin eta ehuneko 94ko kobrantza-ehunekoarekin; haien izaerari begiratuta, diru-sarrera guztiak arruntak dira, zehazki tasetatik, prezio publikoetatik eta bestelako diru-sarreretatik heldu baitira.

Laburbilduz, Mankomunitateak 2015ean gastatutako 100 eurotik bakoitza honela erabili eta finantzatu da:

Gastuaren izaera	2015	Finantza-bidea	2015
Langileak	63	Tasak, prezioak eta bestelakoak	100
Ondasun arruntak eta zerbitzuak	37		
	100		100

Langile-gastuek guztizkoaren ehuneko 63 egiten badute ere, ondasun arrunten kapituluaren kanpoan kontratatutako garbiketako eta sukaldeko langileen gastua jaso da.

2015eko ekitaldirako aurrekontuaren betetzeak eta betetze horren aurreko ekitaldikoarekiko alderaketak honako magnitude eta adierazleak ematen dituzte:

Adierazleak eta magnitudeak	2014	2015	Aldearen %, 15/14
Aitortutako betebeharrak	2.815.058	2.897.554	3
Aitortutako eskubideak	2.731.328	2.820.315	3
Gastu-betetzearen ehunekoa	100	102	
Diru-sarrereren betetzearen ehunekoa	97	99	
Ordainketen ehunekoa	86	89	
Kobrantzen ehunekoa	97	94	
Gastu arruntak (1. kapitulutik 4.era)	2.815.058	2.897.554	3
Funtzionamendu-gastuak (1., 2. eta 4. kapituluak)	2.815.058	2.894.643	3
Kapital-gastuak eta finantza-eragiketenak (6.etik 9.era)	0	0	
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)	2.731.328	2.820.315	3
Tributu bidezko diru-sarrerak (1. kapitulutik 3ra)	2.731.311	2.820.314	3
Tributu bidezko diru-sarrerak / gastu arruntak (ehunekoa)	97	97	
Kapitaleko diru-sarrerak eta finantza-eragiketenak (6.etik 9.era)	0	0	
Aurrekontuko saldo ez finantzarioa	-83.730	-77.239	-8
Aurrekontu-emaizta doitua	-83.730	-77.239	-8
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	-158.200	-266.407	68
Maniobra-funtsa	-158.200	-235.439	49
Aurrezki gordina	-83.730	-74.328	-11
Finantza-zama (3. eta 9. kapituluak)	0	2.911	
Aurrezki garbia	-83.730	-77.239	-8
Zorpetze-mailaren ehunekoa	0	0	
Zorpetzearen mugaren ehunekoa	-3	-3	
Zorpetze-ahalmenaren ehunekoa	-3	-3	
Epe luzeko zor finantzarioa	0	0	
Diruzaintzako kreditua	0	100.000	

Aurreko datuen azterketatik, honakoa azpimarratzen dugu:

- 2015eko gastuak ehuneko hiru handitu dira; hau da, 82.496 euro. Igoera hori funtsean justifikatzen da langile-gastuek ehuneko zortzi egin dutelako gora –hau da, 130.200 euro– ondasun arruntek eta zerbitzuek ehuneko bost behera –50.615 euro– egin duten bitartean.
- 2015eko diru-sarrerak ehuneko hiru handitu dira; hau da, 88.987 euro. Igoera hori tasa eta prezio publikoetatik heldu da (egoiliarrei egindako kobrantzak).
- Bi ekitaldietan, gastu eta diru-sarrera guztiak izaera arruntekoak dira.
- 2015ean, aurrekontu-saldo ez finantzarioak eta aurrekontu-emaiza doituak zenbateko negatiboak eutsi badiete ere, hobera egin dute aurreko urtearekin alderatuta.
- Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakinak ehuneko 68 handitu du bere balio negatiboa: 2015ean 266.407 euroko kopuru negatiboa ageri du. Ez dira aplikatu Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen 230. artikuluan gerakin negatibo horiek ezeztatzeke ezarritako mekanismoak.

Gerakinaren balio negatibo horiek erakusten dute nolako diruzaintza-tentsioak egon diren egoitzaren kudeaketan. Tentsio horiek, halaber, maniobra-funtsaren igoera negatiboan islatu dira. Diruzaintza-behar horiek estaltzeko, 2015eko uztailan 100.000 euroko kreditu-poliza bat itundu zen. 2016ko uztailan ezeztatu da.

Poliza hori modu puntualean erabili da 2015ean nominak eta faktura jakin batzuk ordaintzeko.

- 2015eko finantza-zamaren jatorriak bi jatorri dauzka: batetik –307 euro– diruzaintza-kredituko gastuak eta, bestetik, egoitzak Nafarroako Gobernuarekin sinatutako lekuen bi itunengatik berme gisa aurkeztu behar duen bi abalen kostu finantzarioa –2.604 euro–. 2014an, abalen finantza-kostu hori, 2.623 euro, oker egotzi zen 2. kapituluan.
- Halaber, 2015ean, aurrezki gordinean eta aurrezki garbian balio negatiboak izaten jarraitzen du, haien zenbatekoa gutxitu badu ere.
- Epe luzeko zorpetze finantzariorik ez badu ere, entitateak balio negatiboak dauzka bere aurrezki garbian eta bere zorpetzerako gaitasun ekonomikoan. Horrenbestez, ezin du zorpetzerik hartu.

Azken batean, Irunberriko Mankomunitateak egoera finantzario ahula dauka, funtsean honako hauetan agertzen dena: gastu orokorretarako diruzaintza-gerakin negatiboan, aurrezki gordin eta garbietarako balio negatiboetan eta epe luzeko zorpetze finantzarioa hartzeko ezintasunean.

IV.2. AURREKONTU-EGONKORTASUNEN ETA FINANTZA-IRAUNKORTASUNAREN PRINTZIBIOAK

Aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoari jarraituz, Irunberriko Mankomunitateak, tokiko entitate publikoa den aldetik, honako arau fiskal hauek bete behar ditu:

- Aurrekontu-egonkortasuna, edo ekitaldiko oreka/finantzaketa-gaitasuna, kontabilitate nazionalerako terminoetan neurtua.
- Gastu-araua, hau da, Mankomunitateak 2014koarekin alderatuta gastu zenbakarrian dagoen aldeak ezin du gainditu BPGdaren hazkundearen erreferentziako tasa. Tasa hori ehuneko 1,3an ezarri zen ekitaldi horretarako.
- Zor publikoaren iraunkortasunak esan nahi du Mankomunitatearen zorrak, kontabilitate nazionalerako terminoetan, ezin duela gainditu diru-sarrera arrunten ehuneko 110a.
- Merkataritza-zorren iraunkortasunak esan nahi du hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epeak ezin duela gainditu, orokorrean, 30 eguneko muga.

Mankomunitatearen 2015eko kontu orokorrean ez da aipamenik egiten helburu horiek beteazari buruz, eta ez da informaziorik ematen betetze-mailari buruz. Hala eta guztiz ere, Mankomunitatearen egoerari buruzko zenbatespen bat egin dugu, 2015erako, printzipio horiei dagokienez.

OREKA/FINANTZAKETA-AHALMENA KONTABILITATE NAZIONALEKO TERMINOETAN.

Ganbera honek magnitude horri buruzko kalkulu bat egin du, aurrekontu-saldo ez-finantzariotik abiatuta (diru-sarreraren 1. kapitulutik 7. kapitulura ken gastuen 1. kapitulutik 7. kapitulura); saldu horri honako eragiketatik heldu den doikuntza aplikatu zaio: aitortutako tributu-eskubideak ken ekitaldi arrunteko eta itxitako ekitaldietako kobrantzak. Ezin dira aplikatu dagoen araudiak aipatzen dituen gainerako doikuntzak.

Kalkulu horren emaitza da Mankomunitateak 2015ean 162.175 euroan zenbatetsitako finantzaketa- edo defizit-beharrak izan dituela, honako taula honetan erakusten den bezala:

Kontzeptua	2015
Aurrekontuko saldo ez finantzarioa	-77.239
Zerga bidezko diru-sarreraren doikuntzak	-84.936
Finantzaketa-beharrak	-162.175

Horrenbestez, Mankomunitateak 2015ean ez du bete bere kontuak superabitarekin edo finantza-gaitasunarekin –kontabilitate nazionaleko terminoetan– amaitzeko helburua.

GASTUAREN ARAUA

Gure zenbatespenak oinarri, eta 2015eko aurrekontu-likidazioan zentratuta, hurrengo taulan erakusten ditugu egindako kalkuluak:

Kontzeptua	Zenbatekoa
a. 2014ko gastu zenbakarria	2.815.058
b. 2015eko gehieneko gastu zenbakarria (a + ehuneko 1,3)	2.851.653
c. 2015ean exekutatu den gastu zenbakarria (c)	2.817.404
b-c aldea	34.249

Horrenbestez, Mankomunitateak gastu-arauaren arlorako lege ezarritakoak bete egin ditu.

ZOR PUBLIKOAREN IRAUNKORTASUNA

Mankomunitateak zorpetzerik ez duenez, finantza-iraunkortasunaren printzipioa bete du.

MERKATARITZA-ZORRAREN IRAUNKORTASUNA

2015ean, Mankomunitateak ez du fakturen erregistroa ezarri. Erregistro hori ezinbestekoa da hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epearen indizea kalkulatu ahal izateko. Horrenbestez, ezin dugu esan aztertutako ekitaldian Mankomunitateak araudi indardunean ezarritako epeak bete dituen ala ez.

Hala eta guztiz ere, esan beharra daukagu ezen Ganbera honek egindako azterketan antzeman dugula zenbait merkataritza-ordainketa badaudela lege ezarritako epea zabal gaituzten dutenak. Kontabilitate-erregistroetan ez dago jasota atzerapen horiek dakartzaten berandutze-interesengatikoko gasturik.

Gure gomendioak:

- *Mankomunitatearen aurrekontuaren eta kontu orokorraren dokumentazioaren barruan sartzea aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren printzipioen betetze-mailari buruzko informazio xehea.*

- *Fakturen erregistro elektronikoa ezartzea.*

- *Diruzaintzako plan bat egitea, zeinak aukera emanen baitu hornitzaileei ordaintzeko araudian ezarritako epean –orokorrean, 30 egun–.*

IV.3. ALDERDI OROKORRAK

- Mankomunitateak ez du ez kontu-hartzailerik, ez gordailuzainik hartu, figura horiek estatu-tuetan jasota baditu ere. Bestetik, idazkari eta kontu-hartzailea denaren arduraldia partziala da. Baliabide aski ez izate horrek, berarekin dakar Mankomunitatearen jardueren gaineko barne-kontrola –ekonomikoa eta legezketasunarena– eskasa izatea.

- Egoitzako zuzendariaren eginkizunak eta Mankomunitatearen egituraren betetzen duen tokia ez daude ez definituta, ez zehaztuta.

- Ekitaldiko aurrekontuarekin batera ez da exekuzio-oinarririk aurkezten, aurrekontuaren eta kontabilitatearen kudeaketa zerbitzuaren betekizunei egokitzeko.

- 2015eko abenduaren 31ko egoeraren balantzeak, Mankomunitateak onetsitakoak, bikoizturik aurkezten du kreditu-linearen saldoa, 100.000 eurokoa; izan ere, bai epe luzeko zorrean, bai aurrekontuz kanpoko epe laburreko hartzekodunetan erregistratzen da. Saldo horrek funts berekien igoera negatiboa ekarri du. Txosten honetan jasotako balantzean zenbateko hori doitu da.

Gomendioak:

- *Mankomunitateari barne-kontrolerako sistema bat ematea, garatutako jarduera araudi indardunari egokitzea bermatzen duena.*

- *Ekitaldi bakoitzeko aurrekontuarekin batera, exekuzio-oinarri batzuk aurkeztea, non egoitza-zerbitzua ematearen berezitasunak eta eskakizunak jasoko diren.*

- *Egoitzako zuzendari lanpostuari atxikitako eginkizunak eta eskumenak definitu eta arautzea.*

IV.4. LANGILEAK

Langileriarri buruzkoa den 1. kapituluaren gastuak 2015ean 1,83 milioi egin du; hori, izan ere, ekitaldiko gastuaren ehuneko 63 da.

Betetze-maila, hurrengo taulan ikus daitekeen bezala, ehuneko 108koa da, eta, horrenbestez, gastuetarako kreditu-muga gainditzen du, eta ez dira behar diren aurrekontu-aldaketak egin:

Artikulua	Hasierako kreditua	Aldak.	Behin betiko Kreditua	Aitortutako betebeharrak	Betetzearen ehunekoa	Ordainketak
Lan-kontratupekoen soldatak	1.312.000	0	1.312.000	1.380.467	105	1.380.313
Gizarte Segurantzza	373.000	0	373.000	447.891	120	411.704
Langileria-gastuak, guztira	1.685.000	0	1.685.000	1.828.357	108	1.792.017

2014arekin alderatuta, langileria-gastuek ehuneko zortzi egin dute gora. Igoera hori honela dago justifikatuta:

- 2015eko abenduan 2012an kendutako aparteko ordainsariaren ehuneko 50 itzuli zen, eta horrek 33.801 euro egiten du; gainerako ehuneko 50a 2016ko urtarrilean ordaindu zen: 34.200 euro izan ziren.

- Gizarte Segurantzaren 2015eko gastuak 13 hilabete hartzen ditu, zeren eta 2014ko abendua ere sartzan baita: 34.521 euro dira.

Mankomunitateko langile guztiek, estatutuen arabera, lan-kontratupeko langileak dira.

Mankomunitatearen Batzarrak 2014ko abenduan onetsi zuen 2015eko plantilla organikoa. Plantilla horrek, zeina aurreko ekitaldikoaren berdin-berdin baita, langileen zerrenda izenduna baizik ez du jasotzen –51 langile, finkoen eta aldi baterakoaren artean–, haien lanbide-kategoriarekin, mailarekin eta alta-datarekin. Ez ditu jasotzen legedi indardunak aipatzen dituen gainerako betekizunak: lanpostuen zerrenda, maila, sartzeko baldintza berariazkoak, lanpostu kopurua, lansarien osagarriak eta lanaldia.

2016ko plantillak –batzarrak 2015eko abenduaren 17an onetsi zuen– nabarmen aldatu du bere itxura aurreko bi ekitaldiko plantillekin alderatuta; izan ere, zerrenda izendunaz gainera, lanpostuen zerrenda gehitzen du, lanpostu kopuruarekin, lansarien osagarriekin eta lanaldiarekin.

Plantilla horren arabera, 2015eko abenduan 53 lanpostu daude; horietatik 17k lan-kontratu finkoak dira eta 36, berriz, aldi baterakoak dira, plantillako lanpostu hutsak betetzen dituztenak. Honako taula honetan jasotzen dira xehetasunak:

Harreman mota	Lanpostua	Maila	Guztira
Lan-kontratudun finkoa	Zuzendaria	A	1
	OLT/erizaina	B	2
	Ofizial administraria	C	1
	Mantentze-lanetako ofiziala	C	1
	Zerbitzu orokorrak	D	12
Lan kontratudun finkoak, guztira			17
Aldi baterako lan-kontratudunak	OLT/erizaina	B	6
	Ofizial administraria	C	1
	Zerbitzu orokorrak	D	28
	Gizarte langilea	B	1
Aldi baterako lan kontratudunak, guztira			36
Lanpostuak, guztira			53

Lanbide-kategoriari eta lantokiari erreparatuta, honela xehakatzen dira:

Lanpostua	Maila	Egoitza	Psikogeriatrikoa	Guztira
Zuzendaria (*)	A	1		1
OLT/erizaina	B	3	5	8
Gizarte langilea	B	1		1
Ofizial administraria (*)	C	2		2
Mantentze-lanetako ofiziala (*)	C	1		1
Zerbitzu orokorrak	D	25	15	40
Guztira		33	20	53

(*) Bi zentroek partekatzen dituzte

Alabaina, langileen kopuru egiazkoa 58 pertsonakoa da, zeren eta lanpostu batzuek ehuneko 100etik beherako lanaldia bai baitute; zehazki, bederatzi lanpostu bi edo hiru pertsonak betetzen dituzte. Lanaldi osoko langile kopuru baliokideari erreparatuz gero, langile kopurua 45,3 da: 28,2 egoitzan eta 17,1 psikogeriatrikoan.

Urteko batez bestekoari begiratuta, 2015ean egoitzan 68 pertsonak egin dute lan, honako banaketa honen arabera:

Lantokia	Kopurua
Egoitza	44
Psikogeriatria	24
Guztira	68

Egindako azterketatik eta bederatzi langileren nominetan hartutako laginetatik, ondorioztatzen dugu ezen, oro har, langile-gastuak egoki justifikatuta, kontabilizatuta eta ordainduta daudela. Hala eta guztiz ere, honako alderdi hauek aipatu behar ditugu langileen kudeaketa dela eta:

- Kapituluari egiten zaion aurrekontu-egozpena ez da zuzena, psikiatraren gastuaren kasuan izan ezin; izan ere haren lotura profesionala da ez lan-kontratu bidezkoa. Ez dago jasota zerbitzu hori emateko sinatutako kontaturik dagoenik, eta haren gastua 10.606 eurokoa da. 2. kapituluan erregistratu beharko litzateke.

- Egoitzako langileen lan-baldintzak, lanaldia eta ordainsariak arautzeko, Foru Komunitateko Administrazioeko lan-kontratupeko langileen hitzarmen kolektiboa aplikatzen da. Ikusi dugu berdinak diren lanpostuetan lansari-osagarri desberdinak daudela, baina inguruabar horren justifikaziorik jasota egon gabe.

Lanaldiari dagokionez, egoitzako langile gehienek urtean 1.554 orduz egiten dute lan.

- Jarduera hasi zenetik, Mankomunitateak ez du deialdi publikorik egin plantilla organikoko lanpostuetako enplegu publikora sartzeko, Nafarroako toki entitateei buruzko araudiak ezarritakoaren aurka, eta ez dira aplikatu, orokorrean, merezimendu, gaitasun, berdintasun eta publizitate printzipioak. Lan-eskaintza publikorik ere ez da egin.

- Oro har, ez dago jasota hautaprobarik egin denik langileak kontratatzeko.

- Langileak finko bihurtzea zaharren egoitzan:

1992an, egoitzako bi langileek demanda bat aurkeztu zuten; haren bidez, langile finkoak zirela aitortzeko erreklamatzeko zuten. Emandako erabakiak adierazten du Mankomunitatearekin duten harremana lan-kontratuarena dela eta langile finkoak direla.

1993ko otsailaren 11n, batzarraren erabakiz, aurreko bi langileei langile finkoak izatea aitortu zitzaie, eta finko-izate hori zabaldu zitzaie hala eskatzen zuten Mankomunitateko langileei, baldin eta hiru urtetik gorako iraupena zuten kontratuak bazituzten; neurriak, guztira, 10 langilerengan izan zuen eragina.

Mankomunitatearen 1996ko abenduko batzarrean, haren idazkariak informatu zuen, eta hala dago jasota dagokion aktan, legez kanpokotzat jotzen zuela lanpostuak betetzeko erabili nahi zen bidea.

Data horretatik aurrera:

a) Kontratuen gehieneko iraupena iragateagatik, beste bost langileri finko-izaera aitortu izan zaie, ekitaldi bakoitzeko plantilla organikoa onestearekin. Azken kasua 2005ekoa da.

b) Beste bi langilek demandak aurkeztu zituzten –2006an eta 2007an–, eta aldeko epaia jasota, finko bilakatu ziren.

Aurreko langileetatik, 2015eko abenduaren 31n, 17 langile gelditzen dira jardunean.

Azken batean, aipatutako langileek Mankomunitatean enplegu finkoa eskuratu dute Funtzio Publikoaren Estatutuan aurreikusitako sarrera-prozedurei jarraitu gabe. Izaera hori lortu da epai judizialak aplikatuz eta baldintza horiek zabalduz antzeko egoeretan zeuden langileei.

- Aldi baterako kontratazioa

a) 2008an psikogeriatrikoa abian jartzearekin, eta jardueraren hasierak zeukan urgentzia aipatuz, lanpostu guztiak aldi baterako kontratuekin bete ziren, behin-behineko kontratuekin, lanpostu horiek behin betiko moduan eskaintzen ez ziren bitartean. Egoera hori ez da gaur arte gertatu.

b) Ordezkapenak, bajak eta abarrekoak betetzeko, urtero, Agoizko enplegu-bulegoari eskatzen zaio bulego horren esparru geografikoan kontrata daitezkeen langileen zerrenda bat. Esan digutenaren arabera, zerrenda horietako pertsonak urtetik urtera berak dira, eta, oro har, kontratuari uko egiten diote eskaintako baldintzak direla eta. Horren ondorioz, zentroan lehendik lan egin duten pertsonak berriz ere kontratatzen dira.

Eskaintako baldintzak eta egoitzaren kokapen geografikoa dela eta, zail gertatzen da, neurri handi batean, aldi baterako kontratazio hori.

- Aparteko soldatak. Gai horri buruz, honako hau nabarmentzen dugu:

a) 2015ean, Mankomunitateak bere langileen aparteko soldaten ordainketa aurreratu egin du urtarrilera –ekainekoa– eta ekainera –abendukoa–.

b) Halaber, 2015eko abenduan, 2012ko abenduan kendutako aparteko soldataren ehuneko 50 itzuli zuen. 2015erako Estatuko Aurrekontuei buruzko Legearen hamabigarren xedapen gehiga-

rriari jarraituz, berreskuratze horretarako baldintza da Aurrekontu-egonkortasunari eta Finantza-iraunkortasunari buruzko Lege Organikoan ezarritako irizpide eta prozedurak betetzea.

c) 2016ko urtarrilaren 2012ko aparteko soldataren gainerako ehuneko 50a ordaindu zuen. 2016rako Estatuko Aurrekontuei buruzko Legearen hamabigarren xedapen gehigarriari jarraituz, berreskuratze horretarako kontuan hartu beharra dauka entitatearen egoera ekonomiko-finantzarioa.

- Mankomunitateko idazkariaren ordainsariak. 2015ean, 2.527 eurokoak izan dira. Horietan, ez da aginduzkoa den PFEZaren atxikipenik egiten, eta kopuru hori ez da jasotzen ordainsarien urteko aitortpenean.

- Mankomunitateko lehendakariaren postua egoitzako langile finkoa izatearekin bateragarria den ala ez:

Mankomunitateko estatutuen arabera –2016ko abendura arte daude indarrean–, Irunberriko alkatea Mankomunitateko lehendakaria da aldi berean. Aurreikuspen horien arabera, udal horretako alkateak 2015eko ekainean lehendakaritza eskuratu zuen. Kontua da, lehendakari hori egoitzako langile finkoa dela. Eskatutako datan, lanaldi-murritzeta bat –ehuneko 100etik ehuneko 57ra– eskatu zuen Udaleko erantzukizunetan aritu ahal izateko, eta eman egin zitzaion.

Araudi indarduna ikusita, jo liteke bateraezintasuneko balizko arrazoi bat egon daitekeela mankomunitateko lehendakari karguaren eta bertako jarduneko langilea izatearen artean. Horri dagokionez, Mankomunitateko Batzar Orokorak egoera hori aztertu beharko luke, eta behar den espedientearen instrukzioa egin ondoren, kasuko erabakia hartu beharko luke, bi eginkizunak bateragarriak diren ala ez diren ebatziz.

Estatutu berrietan jasotakoaren arabera, eta txosten hau izapidetzen ari den bitartean, zehazki 2017ko urtarrilean, Mankomunitateko lehendakariak dimisioa eman du kargu horretan, eta haren ordeztu Irunberriko alkateordea jarri da; horrenbestez, konponbidea eman zaio balizko bate-aezintasuna.

Gomendioak:

- *Egoitzako langileen egungo egoera aztertzea eta pixkanaka lan publikoaren eskaintzak egitea, kasuko deialdi publikoen eta hautapoben bitartez berma dadin enplegurako sarrera berdintasun, merezimendu, gaitasun eta publikotasun printzipioen arabera eginen dela.*

- *Araudi fiskala ordaindutako era guztietako ordainsariei aplikatzea.*

IV.5. ONDASUN ARRUNTAK ETA ZERBITZUAK

Mankomunitatearen 2. kapituluak, gastuena, 1,06 milioikoa da, eta gastu guztien ehuneko 37 egiten dute.

Kapituluko gastuaren ehuneko 79 egiten duten honako kontu-sailak aztertu ditugu:

Kontu-sailak	Zenbatekoa
Aholkularitza ekonomikoa	31.882
Jantokia	392.431
Garbiketa	375.315
Fisioterapeuta eta terapia okupazionala	39.010
2. kapitulutik aztertutakoa, guztira	838.637

Kapituluaren exekuzioari buruz egindako berrikuspenetik eta azterketa orokorretik, honako hauek nabarmendu behar ditugu:

- Gastuetarako kreditua kapituluko bost lotura-poltsetatik bitan gainditzen da, horretarako behar diren aurrekontu-aldaketak onetsi gabe.

- Ez da fakturen erregistrarik egiten, eta fakturek ez dute beti aldean izaten emandako presztazioarako adostasuna.

- Ez dira gastu arruntak eta inbertsioa bereizten, eta jarduketa guztiak 2. kapitulu honetan kontabilizatzen dira.

- 2015ean, ez da kontratazio berrien esleipenik egin. Oro har, kontratazioaren arloko legedi indardunean laguntza-kontratueterako eta horniduren kontratueterako aurreikusitako gehieneko indarraldi-epea gainditzen da. Bi kontratuk 1989ko data dute, eta beste kasu batzuetan ez dago jasota kontraturik dagoenik.

- Hornitzaileei ordaintzeko legezko epeak zabal gainditzen du araudi indardunean ezarrita dagoen 30 eguneko epea.

Egoitzaren diruzaintza-zailtasunak neurri handi batean konpontzen joan dira, hornitzaile nagusiei ordaintzeko adostu den atzerapen batekin. Ez dago jasota atzerapen horrengatik berandutze-interesik ordaintzen denik.

- Jantokia. Jantokiko zerbitzueterako kontratua 1992ko abenduaren 31n izenpetu zen, eta urtero luzatu da KPlaren gaurkotzearekin; menu osoa (gosaria, bazkaria, merienda eta afaria) eguneko 7,43 euroan dago 2015ean. Kontratu horretan ezartzen da ordainketa 90 egunera eginen dela, nahiz eta 2015ean horietakoren batean egiaztatu den ordainketa-epea 120 egunekoa izan dela.

2015ean, kontratu horrek 391.489 euroko gastua ekarri du, hileko 12 fakturei dagokiena. Ekitaldiaren amaieran, berriz, ordaintzeko geratu dira irailetik abendura bitarteko fakturak: 133.710 euro egiten dute.

2002an, egoitzako sukaldearen instalazioen erabilerari buruzko ituna egin zen, Irunberriko haur eskolako bazkariak bertan prestatu ahal izateko. Kontratu hori Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak, Irunberriko Udalak, egoitzak eta enpresa hornitzaileak sinatu zuten, eta ez du inongo kontraprestaziorik jasotzen.

Jantokiaren kontu-sailaren barruan, oker bat tarteko, 942 euroko faktura bat sartu da, fisioterapia-zerbitzuei dagokiena.

- Garbiketa. Garbiketa-kontratuak 2011ko abenduaren 31n sinatu zen, eta 2012ko ekitaldian indarra izanen zuela ezarri zen; halaber, ezarri zen urtero luzatu ahalko zela, aldeetako batek aurretiaz, gutxienez ere 30 egunez, uko egiten ez badio. Ordainketa fakturaren datatik 90 egunera eginen zela adostu zen.

Kontratuaren xedeak jasotzen ditu bai egoitzako bi zentroen garbiketa orokorra, bai garbitegia eta ohe zerbitzua ere.

2015eko gastuak hileko 12 faktura jasotzen ditu, eta guztira 93.792 euro ordaintzeko daude: irailetik abendura bitarteko fakturei dagokie kopuru hori.

Kontratu horri buruz, esan beharra daukagu Mankomunitateko Batzar Orokorrak, 2012ko azaroaren zazpian egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuela: "*Garbiketa-enpresari jakinaraztea ez dezan jarraitu Irunberriko San Isidro egoitzan zerbitzuak ematen*". Hala eta guztiz ere, enpresak zerbitzuak ematen jarraitu du gaur arte. Ez dago jasota Batzarrak ondotik aipatutako erabakia ezeztatzen duen inongo erabakirik hartu duenik.

Gomendioak:

- *Legedi indardunean ezarritako gehieneko indarraldia gainditu duten kontratu guztien lizitazioa egitea.*

- *Behar den kontratuaren bidez formalizatzea kontratu-harreman guztiak.*

- *Aurrekontuari egozterakoan, gastu arruntak (funtzionamendukoak eta mantentzekoak) eta inbertsioak bereiztea; azken horiek 6. kapituluari gotzi behar zaizkio.*

- *Jasotako zerbitzu bati dagokion bezala, ontzat ematea edo adostasuna bildu beharko dute fakturek.*

IV.6. DIRU-SARRERAK

Mankomunitatearen 2015eko diru-sarrerek honako betetze hau izan dute:

Diru-sarrerek	Hasierako kreditua	Aldaketa	Behin betiko kreditua	Aitortutako eskubide garbiak	Exekuzioaren %	Kobrantzak	Kobratzeko dagoena
33010 Zaharrentzako egoitza eta parekoak	2.829.000	0	2.829.000	2.811.438	99	2.654.483	156.954
39901 Era askotako bestelako diru-sarrerek	2.000	0	2.000	8.876	444	8.876	0
462 Udalen transferentziak	2.000	0	2.000	0	0	0	0
520 Banketxeetako kontuen interesak	100	0	100	1	1	1	0
Diru-sarrerek, guztira	2.833.100	0	2.833.100	2.820.315	99	2.663.361	156.954

2014. urtearekin alderatuta, diru-sarrerek ehuneko hiru egin dute gora –hau da, 88.987 euro–: funtsean, egonaldientatik jasotako diru-sarrerek dira.

A) Egoitzako prezio publikoengatik eta itunengatik aitortutako eskubideak 2,81 milioikoak dira; honela gehakutzen dira:

Egoitzaren diru-sarrerek	Zenbatekoa
Zahar-etxeko kuotak	1.968.262
Nafarroako Gobernua-Adinekoen Egoitza	113.322
Nafarroako Gobernua-Psikogeriatrikoa	683.612
Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza, terapia okupazionalerako	2.046
Jasotako jaraunspenak	45.789
Fidantzen itzulketa	-1.593
Guztira	2.811.438

Egindako lanetik eta azterketatik honako hau nabarmenduko dugu:

- Egoitza, funtsean, finantzatzen da egoiliarrei kobratutako prezio publikoen bitartez eta Nafarroako Gobernuarekin dauden bi itunek –egoitza eta psikogeriatrikoa– sortutako diru-sarreren bitartez, Ez dago jasota entitate mankomunatuaren ekarpenik dagoenik.

- Egoiliarren kuotak Mankomunitateak onetsitako ordenantza fiskalean araututa daude. Hartan, izan ere, 2015erako honako prezioak finkatzen dira –2014ko berak dira–:

a) Laguntza behar duten edo mendekotasuna duten egoiliarrek: 1.860 euro hilean

b) Laguntzarik behar ez duten edo mendekotasunik ez duten egoiliarrek: 1.350 euro hilean.

Ez dago jasota aurreko zenbatekoak jasateko azterlan teknikorik.

Ordenantza horretan, funtsean, honako hauek ezartzen dira: zerbitzua ematetik heldu den zerga-egitate, betebeharraren sorrera, subjektu pasiboa eta ordaindu beharreko prezioaren sortzapena (hil bakoitzaren lehenengo egunean aurrez ordain daitekeena). Era berean, fidantzak eskatzeko aukera jasotzen da, bajak eta balizko ez-ordaintzeak bermatzeko; gaur egun, ordea, halakorik ez da eskatzen.

- Nafarroako Gobernutik jasotako diru-sarrerek.

a) Zaharren egoitza. Zaharren egoitzarako “ResideN” kontratua, 2015eko uztailean sinatu zuten Pertsonek Autonomiarako Nafarroako Agentziak eta Mankomunitateak, eta haren bidez egoitzako 20 leku itundu ziren urte hartako abuztutik honako prezio edo modulu hauekin: hileko 1.894 euro mendekotasuna dutenentzat eta hileko 1.325 euro mendekotasunik ez dutenentzat. Ikus daitekeen bezala, modulu horien zenbatekoa Mankomunitateak ezarritako tarifetan ageri denaren oso antzekoa da.

b) Psikogeriatrikoa. Orduko Nafarroako Mendekotasun Agentziak eta Mankomunitateak 2013ko maiatzean sinatua, 30 leku kudeatzeko. Okupatutako leku bakoitzeko hileko 2.051 euroko prezioa ezarri zen; Agentziak egoitzari zati garbia ordaintzen dio, hau da, erabilzaileak berak egoitzari zuzenean ordaintzen duena deskontatu ondorengo zatia. Bestalde, esparru-akordio bat sinatu zen O-NOZekin, osasun prestazio psikogeriatrikoa egoitza-araubidean emateko: eguneko 20,85 euroko prezioa finkatu zen egonaldietarako.

Zerbitzu horiek hila bukaturik fakturatzen dira, eta ikusi dugu batez beste diru-sarrerera horiek honela jasotzen direla:

a) Zaharren egoitza: Gizarte Gaietako Departamentuak eguneko 41,6 eguneko batez beste-koarekin ordaintzen du, fakturatutako hilaren amaieratik.

b) Psikogeriatrikoa. O-NOZek, batez beste, 19,33 egun geroago ordaintzen du, eta Gizarte Gaietako Departamentuak, berriz, 30,17 egun geroago.

Atzerapen horiek ez dute erraztasunik ematen egoitzaren diruzaintza kudeatzeko.

- Egindako azterketatik honako hauek azpimarratuko ditugu:

a) Egoitzak itunen bidez izan dituen diru-sarrerak alderatu dira Nafarroako Gobernuak islatu-tako gastuekin, eta ez dago aipatzeko moduko gorabeherarik.

b) Hilez hil egoiliarrengandik jasotako diru-sarrerak aztertu dira erroldekin, kontabilitatearekin eta banku-laburpenekin, eta honako alderdi hauek aipatu behar dira:

1.a Jasotako kobrantzak likidazioari egozten zaizkio, zein aurrekontu-ekitalditakoak diren be-giratu gabe.

2.a Kontabilitatean behar baino 12.961 euro gehiago erregistratu dira, banku-laburpenen ara-bera kobratutako diru-sarrereri begiratuta. Ez dago jasota desadostasun horren justifikaziorik. Na-barmentzekoa da abenduan ikusitako aldea, kontabilitateko diru-sarreretan behar baino 28.894 euro gehiago baitaude. Horietatik, ikusi dugu 5.498 euro 2016an sortzekoak izan baino 2015eko aurrekontuari egotzi zaizkien diru-sarrereri dagozkiela.

3.a Balantzean, aurrekontuz kanpoko epe laburreko hartzekodunen barruan, “aplikatzekoak diren diru-sarrereren” kontu-sail bat jaso da, 124.735 eurokoa, zeina bat baitator 2016ko urtarrileko ordainagi-rien sailarekin; izan ere, kobratzeko 2015eko abenduaren 30ean aurkeztu zitzaizkion bankuari.

c) Kontu-sailari oker egotzi zaizkio bai jaraunspenen bidezko diru-sarrerak –kontabilitate-araudiaren arabera transferentzia arrunten kapituluaren erregistratu behar ziren–, bai Nafarroako Gobernuak terapia okupazionalerako eta fisioterapiarako jardueretarako emandako diru-laguntzak eta fidantzen itzulketak ere.

- 2015eko aurrekontutik guztira 156.954 euro daude kobratzeko; honako hauei dagozkie:

Ekitaldiko diru-sarrerak, kobratzeko daudenak	Kobratzeko dagoena
Nafarroako Gobernuarekiko itunak	133.282
Egoiliarren kuotak	23.672
Kobratzeko dagoena, guztira	156.954

• 2015eko abenduaren 31n, egoitzako kuotak direla-eta zordunek metatutako saldoa 54.599 eurokoa zen. Horretatik, ehuneko 67 kobratzen oso zaila dela jotzen da. Zehaztu beharra dago zor diren aurreko kopuru horiek kobratzeak dakartzan kudeaketa-zailtasunak heldu direla egoiliar bakoitzaren inguruabar eta arazo partikularretatik.

B) “Era askotako bestelako diru-sarrerak” 8.876 euro inguru dira, eta kutxako irizpidearen ara-bera kontabilizatzen dira. Horien ehuneko 73 oker egotzi zaizkio kontu-sailari. Hartara, nagusiki, 5.350 euro entitate pribatu batentzako diru-laguntza bati dagozkio; 930 euro egoitzan egindako egonaldi batekoak dira, eta 86 euro, azkenik, kontu korrante bateko interesak dira.

Gure gomendioak:

- *Kontabilitatearen jarraipen, kontrol eta erregistro egokia egitea, egoiliarrek jasotako diru-sarrerak direla eta.*

- *Sortzapenaren irizpidea aplikatzea diru-sarrereren kudeaketan.*

- *Diru-sarrerak aurrekontuaren kasuko kapitulu/kontu-sailari egozteak daukaten izaera eko-nomikoaren arabera.*

IV.7. IBILGETUA

Ibilgetuak, balantzean, balio nulua du. Lehen aipatu den bezala, egoitzaren bi eraikinak – asistentziala eta psikogeriatrikoa– Nafarroako Gobernuak eraiki zituen eta haren jabetzakoak dira. Irunberriko Udalak lagatako lurretan eraiki ziren. Bereizita dauden bi eraikin dira, baina Psikogeriatrikoak funtsezko diren gutxieneko zerbitzuak falta ditu (sukaldea, garbitegia eta abar), modu beregainean lan egin ahal izateko.

Ez dago inongo agiririk Nafarroako Gobernuak Mankomunitateari eraikinen erabilera laga diola eta eraikin horien kudeaketak nola izan behar duen formalizatzen duenik. Hala eta guztiz ere, printzipio gisa, ondoriozta daiteke Nafarroako Gobernuak, instalazioen jabea den aldetik, bere gain hartzen dituela egituran eta ekipamenduan egin beharreko inbertsioak, eta Mankomunitateak mantentze-gastuak hartzen dituela.

Definizio falta horren ondorioz, egoitzan inbertsioak –oro har, presako konponbidea eskatzen dutenak– egiteko beharra sortu denean, finantzaketa era askotara ebatzi da. Adibidez, honako hauek aipa ditzakegu:

- 2015eko urtarrilean, galdara hautsi zen, eta egoitzak presaz ordeztu behar izan zuen zuzenean. Galdararen erosketa ez zuen Nafarroako Gobernuak finantzatu, eta horretarako oinarria izan zen ez zirela jarraitu kontratazio-araudian erosketetarako ezarritako prozedurak. Egindako inbertsioaren guztizkoa 33.439 eurokoa da, eta egoitzaren aurrekontuaren 2. kapituluan kontabilizatu da; diruzaintzako tentsioak tarteko, hornitzailearekin erabaki da ordainketa geroratzea; itxierako datan guztira 16.439 euro geratzen dira ordaintzeko.

- 2015eko irailean, ontzi-garbigailua ordeztu beharra dago. Nafarroako Gobernuak eskatuta (Nafarroako Mendekotasun Agentzia) bi txosten eskatu ziren: egoitzako zuzendariaren txosten bat, hura ordeztzeko beharrari buruzkoa, eta konponketa ezinezkoa dela adierazten duen txosten tekniko bat. Azkenean, ontzi-garbigailuak Nafarroako Gobernuak erosi zuen, 1.998 euroan.

Eraikinak eta instalazioek egiturazko hainbat gabezia dituzte, konponbidea eman beharrekoak, bereziki zaharrei begira. 2009ko azaroan, erreforma-proiektu bat egin zen, egin beharreko jarduketa nagusiekin. Jarduketa horiek hainbat alderdiri buruzkoak dira: araudiari egokitzea (arkitekтура-oztopoak kendu komunitan eta geletara sartzeko ateetan eta abar), hondatuta dauden elementuak ordeztzea (instalazio elektrikoa berritu, komunak birmoldatu, hezetasunak sortutako kalteak eta abar) edo zentroaren funtzionaltasuna hobetzera bideratutako jarduketak (beste igo-gailu bat jarri, terrazak egokitu eta itxi, egongela handitu eta abar). Erreformen guztizko aurrekontua 1,14 eurokoa da (BEZik gabe). Proiektua, egoitzako zuzendariaren esanetan, guztiz desfasatuta geratu da, instalazio horiek etengabe hondatzen joan direlako pixkanaka.

Nafarroako Gobernuak, bere aldetik, informatu du 2009tik 2016ra egoitzan 475.058 euroko gastua egin dituela. Gastu horiek inbertsioei zein ekipamenduei dagozkie; lehenengoen artean, nabarmentzekoak dira behe-tentsioari buruzko araudiari egokitzea eta komunen erreforma egitea.

Bestalde, ez dago jasota egoitzaren jabetzapekoak diren edo/eta Nafarroako Gobernuak erabilera lagatako ondasunen inbentariorik dagoenik.

Gure gomendioak:

- *Presaz dokumentatzea Nafarroako Gobernuak eraikinak eta haien kudeaketa direla-eta egindako lagapena, aldeetako bakoitzaren betebeharrak eta eskubideak definituz eta zehaztuz.*

- *Aurrekoa osatze aldera, jarduketa-plan bat egitea egoitzako eraikinetan egin beharreko erreformei buruz, arau indardunari egokitzeko eta kudeaketa asistentziala errazteko. Plan horrek erreforma horiek ordaintzeko behar diren finantzabideak jaso beharko ditu.*

- *Inventario bat egitea, non egoitzaren jabetzapeko ondasunak eta haien erabilerarako lagatakoak jasoko diren.*

IV.8. BESTE ARLO BATZUK

- 2015eko abenduaren 31n, erabili gabeko diruzaintza-kreditua bat dator emandako mugarekin –100.000 euro–. Ekitaldian zehar, erabili izan da eta gero berrezarri da, funtsean lansariak zenbait faktura uztailean ordaintzeko. Gure ustez, egoitzak dauzkan diruzaintza-tentsioak tarteko, kreditu hori 2016an ezeztatu izanak tentsio horiek areagotu ahal izan ditu.

- Epe laburreko zorrak. Balantzearen ondare-masa horrek ondoren azaltzen dugun saldoa du –xehakatuta eta aurreko ekitaldikoarekin konparatuta eman dugu–:

Epe laburreko zorrak	2014	2015
Ekitaldiko aurrekontuko hartzekodunak	393.693	305.536
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak	28.139	269.393
Guztira	421.832	574.929

Ekitaldiko aurrekontuaren hartzekodunak azken hiruhilekoko fakturei eta galdara ordeztetik ordaindu gabe dagoen ordainketari dagozkie; halaber, Gizarte Segurantzarekiko zorra sartzen da, 36.187 eurokoa, 2015eko abenduari dagokiona. Hori, izan ere, 2016ko urtarrilean ordaintzen da.

Aurrekontuz kanpoko hartzekodunetan, 2015eko abenduko PFEZaren eta Gizarte Segurantzaren atxikipenez gainera –44.659 euro–, honako hauek jasotzen dira:

- Diruzaintza-kreditua, itundutako mugari dagokiona: 100.000 euro.
- Aplikatzeko geratu diren diru-sarrerak, 124.735 eurokoak.

- Aurrekontuz kanpoko hartzekodunetan, funtsean, gas-horniduraz arduratzen den enpresari emandako aurrerakin bat jaso da, 27.654 euroko saldoa duena; zenbateko hori hornidura horren ordainketa-sistemari dagokio, zeren eta egoitzak hilero kopuru finko bat ordaintzen baitu. Kopuru hori hurrengo urteko otsailean erregularizatuko da, kontsumo errealearen arabera.

- Abalak. Egoitzako leku batzuk ituntzeko Eskubide Sozialetako Departamentuarekin egindako kontratuak direla eta, Mankomunitateari berme batzuk eskatzen zaizkio: kontratuen ehuneko bikoak dira, eta guztira 92.188 euro egiten dute. Berme horiek Mankomunitateak formalizatu zituen finantza-entitate batekin itundutako bi banku-abalen bitartez; horrek, 2015ean, 2.604 euroko finantza-gastua eragin du, honako taula honen arabera:

Abala	Bermearen zenbatekoa	Hiruhilekoaren interes-tasa abalari aplikatua	Abalen urteko gastu finantzarioa
Zaharren egoitza	32.735	% 0,25	226
Psikogeriatrikoa	59.453	% 1,00	2.378
Guztira	92.188		2.604

Deigarri gertatzen da bi abalen kostuan aplikatutako tasak desberdinak izatea. Bi kontratuetan 0,25a aplikatuta, Mankomunitateak urtean 1.800 euroko aurrezkoa izanen luke.

Aipatutako abalen tasak aztertzea gomendatzen dugu, kasua bada beste finantza-entitate batzuei eskaintzak eskatuz.

IV.9. NAFARROAKO GOBERNUAREN IKUSKATZE-JARDUKETAK

Eskubide Sozialetako Departamentuak zentro asistentzialen gainean kalitatea kontrolatzeko eta ikuskatzeko dauzkan eskumenen arabera, 2009tik 2016ra kasuko zerbitzuak honako jarduketak hauek egin ditu:

- Egoitzako bi zentroi buruzko ikuskatze arruntetarako plana. 2011tik 2014ra bitarteko ekitaldietan eta 2016an ikuskatzeak egin dira. Ikuskatze horien ondorioak, funtsean, honako hauek oinarritzen dira: partaidetzarako kontseiluaren bilerarik ez egitea; langileentzako prestakuntza plan eskasa; kexa eta iradokizunetarako sistema egokirik ez izatea, eta erabiltzaile guztientzako banakako arretarako planak egin eta aplikatzeko beharra.

- Alde batek hasi eta departamentuan aurkeztu diren salaketak:

a) Zaharren egoitza. Aldi honetan guztira 11 salaketa aurkeztu dira; horietatik, zazpi artxibatu dira, errekerimendua edo/eta gomendioak eginez. Gainerako lauak zehapen prozedurekin amaitu ziren, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legea zorrotz aplikatuta, eta Mankomunitateari zehapen batzuk, 69.573 eurokoak –errekarguak barne–, ekarri zizkioten, Departamentuak emandako informazioaren arabera. Guztira, 43.552 euro gelditzen dira ordaintzeko.

b) Psikogeriatrikoa. Hiru salaketa aurkeztu dira. Horietatik bi artxibatu dira; hirugarrenean, ANAPekiko itunaren ez-betetze bat egiaztatu zen, zeren eta egoitzak doan eman behar baititu egoiliarrentzako euspen-elementuak.

IV.10. KUDEAKETA-ADIERAZLEAK

IV.10.1. MENDEKOTASUNA DUTEN HIRUGARREN ADINEKOEN EGOITZA-LEKU BAKOITZEKO GASTUA

2015eko ekitaldiari buruzko aurrekontu-informaziotik abiatuta –horrenbestez, instalazioen amortizazioa jaso gabe–, hirugarren adinekoen egoitzakoak izan eta mendekotasuna dutenen leku bakoitzeko gastua zenbatetsi dugu. Horretarako, aurrekontu-gastua banatu dugu hirugarren adineko zentroaren eta psikogeriatrikoaren artean, zenbait irizpideren arabera (erabiltzaileen kopurua, langileen kopurua, kontratatutako zerbitzuen fakturazioa eta abar); zenbatespen horren emaitza da egoitzaren aurrekontu-gastua 1,94 milioikoa dela eta psikogeriatrikoarena, berriz, 0,96 milioikoa.

Hirugarren adinekoen egoitzan zentratuta, aurreko zenbatekoa bitan zatitu da, batetik, mendekotasuna dutenen lekuak eta bestetik baliodunen lekuak, zenbait hipotesiri jarraituz: langile-gastuak, Eskubide Sozialetako Departamentuak itunean aplikatu eta egoitzarekin adostutakoaren arabera, eta gainerako gastuak, mendekotasuna dutenen lekuetan ekitaldian egon den batez besteko okupazioaren arabera.

Zenbatespen horien arabera, mendekotasuna dutenen gastua hilean 1.934 eurokoa izan da 2015ean.

Hurrengo taulan gastu hori Mankomunitateak onetsitako tarifarekin eta Nafarroako Gobernuarekin adostutako moduluarekin alderatu dugu:

Mendekotasuna duten hirugarren adineko pertsonentzako lekuei buruzko alderaketa	Hileko zenbatekoa	Aurkibidea
Mankomunitateak onetsitako tarifa	1.860	100
Nafarroako Gobernuak aplikatutako modula	1.894	102
Kontuen Ganbarak zenbatetsitako gastua	1.934	104

Ikus daitekeen bezala, ganbera honek zenbatetsitako gastua ehuneko lau handiagoa da Mankomunitateak onetsitako tarifa baino, eta ehuneko bi handiagoa, berriz, Nafarroako Gobernuak aplikatutako modula baino.

2015ean, mendekotasuna dutenen guztizko gastua eta haiek sortzen dituzten diru-sarrerak alderatuta, honako hau ikusten dugu:

Mendekotasuna dutenen lekua	Zenbatekoa
Gastua, guztira	1.647.826
Diru-sarrerak, guztira	1.517.867
2015ean sortutako defizita	-129.959

Horrenbestez, eta kontuan hartuta egoitzaren okupazio-maila erreala –ehuneko 93 dago beta– mendekotasuna duten hirugarren adinekoen lekuek 2015ean ia 130.000 euroko defizita sortu dute, amortizazioak eta etekin industrialak kontuan hartu gabe. Logikoa den bezala, okupazio-maila ehuneko 100etik gorakoa izan balitz, oreka lortuko zen zerbitzuaren finantzaketan.

IV.10.2. PSIKOGERIATRIKOKO LEKU BAKOITZEKO GASTUA

Aurreko ataleko metodologia bera erabiliz, zentro psikogeriatrikoko leku bakoitzeko gastua kalkulatu dugu.

Gure zenbatespen horien arabera, leku bakoitzeko gastua hilean 2.659 eurokoa izan da 2015ean.

Hurrengo taulan gastu hori Nafarroako Gobernuarekin adostutako moduluarekin alderatu dugu:

Psikogeriatrikoko lekuen alderaketa	Hileko zenbatekoa
Nafarroako Gobernuak aplikatutako modulua	2.684
Kontuen Ganbarak zenbatetsitako gastua	2.659

Ikus daitekeen bezala, ganbera honek zenbatetsitako gastua ehuneko bat txikiagoa da Nafarroako Gobernuak aplikatutako modulua baino.

2015eko guztizko gastua zentro psikogeriatrikoak sortzen dituen diru-sarrerekin alderatuz gero, honako hau ikusiko dugu:

Psikogeriatriko lekua	Zenbatekoa
Gastua, guztira	957.089
Diru-sarrerak, guztira	966.368
2015ean sortutako superabita	9.279

Azken batean, Psikogeriatriko lekuek 9.279 euroko superabita ekarri diote egoitzari 2015ean, itunetik heldutako osasun zerbitzuaren gastuak, amortizazioak eta etekin industrialak kontuan izan gabe. Alabaina, zehapen baten ordainketak superabit hori ukitu zuen –diru-sarrerak gutxituz berdindu zen–; hori dela eta, 2015ean, 7.836 euroko defizit efektiboa sortu zen.

IV.10.3. BESTE ADIERAZLE BATZUK

- Hirugarren adineko leku bakoitzeko prezioaren eta eskualdeko beste egoitza batzuen prezioen alderaketa. Hurrengo taulan, Irunberriko egoitzako lekuen prezioak Zangozako eta Kasedako egoitzetako lekuen prezioekin alderatu ditugu, tipologiari begiratuta:

Leku mota/2015eko hil bakoitzeko prezioa	Zangozako egoitza	Egoitza Kaseda	Irunberriko egoitza
Balioduna, banakako gelan	948	1.064	1.350
Balioduna, binakako gelan	897		
Sasi-laguntzaduna	1.232	1.374	1.777 (*)
Laguntzaduna	1.768	1.686	1.860
Mendekotasun handikoa		1.900	

(*) Leku mota eta haren prezioa ez daude ordenantzan jasota, baina aplikatuta ageri da kasuren batean.

Lekuen tipologiaren heterogeneotasuna gorabehera, ondoriozta dezakegu Irunberriko prezioak aipatutakoen goiko tartean daudela. Halaber, ikusten dugu beste bi egoitzetan leku moten eta haien prezioen aniztasuna handiagoa dela.

• Hirugarren adinekoentzako lekuen betetzearen bilakaera, ekitaldi bakoitzaren hasierakoa, honako taula honetan ageri da:

Hilabetea	Okupazioa, 2014	Okupazioa, 2015
Urtarrilaren 1a	81	85
Otsailaren 1a	82	83
Martxoaren 1	82	82
Apirilaren 1a	79	80
Maiatzaren 1a	82	81
Ekainaren 1a	85	81
Uztailaren 1a	85	81
Abuztuaren 1a	84	82
Irailaren 1a	87	84
Urriaren 1a	86	85
Azaroaren 1a	86	85
Abenduaren 1a	84	86
Urteko batez bestekoa	84	83
Egoitza-lekuak, guztira	89	89
Okupazioa, ehunekotan	94	93

Ikusten denez, bi ekitaldietan betetze-maila antzekoa izan da. Halaber, 2015eko abuztutik, Nafarroako Gobernuarekin itundutako 20 lekuak beteta daude; betetze-egoera bereberek daude psikogeriatrikoko 30 toki itunduak.

• Hirugarren adineko langileen ratioak itunean aipatutakoarekin alderatuta. Hurrengo taulan alderatzen ditugu Nafarroako Gobernuak hirugarren adinekoentzako itunean ezartzen dituen betekizunak egoitzako plantillak dituenekin.

Kategoria	Ituna	Egoitza
Zuzendaria (kopurua)	0,75	1
Erizaina (kopurua)	3,36	3
Fisioterapeuta (orduak)	1.283,74	1.145,25
Terapia okupazionala (orduak)	1.095,01	961,00
Gizarte langilea (kopurua)	0,39	0,64
Aisiarako laguntzailea (kopurua)	0,62	
Zaintzailea (kopurua)	27,61	21,07

Hau da, zuzendari eta gizarte langile postuak kenduta, egoitzako langileei buruzko gainerako adierazleak kontratu bidez eskatzen direnak baino apalagoak dira.

Bestalde, Eskubide Sozialetako Departamentuak 2016an egindako ikuskatzean, egoitzako langileen ratioei buruzko azterlan bat egin da, zortzi astez ondoz ondo fitxatutakoei dagokienez (2016ko irailaren 16tik azaroaren 10era), eta azterlan horretan aztertutako egun bakoitzeko mendekotasunaren araberako okupazioa ere jaso da. Honako hauek dira azterlanaren ondorioak, aipatutako aldiari dagokionez:

- Fisioterapiako langileengan orduen defizit bat badago, 42,14 ordukoa.
- Halaber, erizaintzako langileen orduetan defizit bat ikusi da, 34,49 ordukoa.
- Aisiarako begiralearen figurarik ez dago baina superabit bat ikusten da jarduera hori bete-zeko zerbitzu orokorrek egindako zuzeneko arreta-orduetan.
- Gainerako langileei dagokienez, bete egiten dira itunean ezarritako orduak.

Aurreko ratioen multzoari buruz, egoitzak dio, alde batetik, zaintzaile orduetan ez direla sartu lan horiek egiten dituzten baina kanpoan kontratatuta dauden langileen orduak; bestetik, erizaintzako orduak orokorrean hartu beharko lirateke, egoitzak Nafarroako Gobernuarekin izenpetuta dauzkan zerbitzu eta ituna kontuan hartuta.

- Egoiliarrei edo/eta haien familiei ez zaie asetze-inkestarik egiten.

V. AMAIERAKO LABURPENA

Azken batean, amaierako laburpen gisa, Irunberriko Mankomunitateak funtsezkoa den gizarte zerbitzu bat ematen du, bere lurralde-esparrua gainditzeko duena eta langileen nabarmentzeko moduko jarduna eskatzen duena.

2015ean, egoera finantzario ahula dauka, egiturazkoa, eta horrek eskatzen du presako plan ekonomiko bat egin dadila, haren bideragarritasun finantzarioa bermatze aldera.

Hartara, diru-sarrerei dagokienez, egoitza-lekuen prezio publikoei buruzko politika berrikusi beharra dago, eta aztertu beharra dago ea toki entitate mankomunatuak aldizka finantza-ekarpenak egin behar dituzten, eta aztertu beharko litzateke, halaber, ea Nafarroako Gobernuak bere gain hartu behar ote dituen sortutako egiturazko defizitak; hala ere, emandako zerbitzu publikoa laguntza-izaerakoa izatea eta toki entitate mankomunatuaren finantza-ahalmen eskasa direla-eta –are gehiago kontuan hartuta toki entitate horietako bizilagunek leku horien ehuneko zortzi baizik ez dutela betetzen–, zail gertatzen da diru-sarreraren tarte hori handitzea. Bestetik, Nafarroako Gobernuak funtsak jarri ditu, ekitaldi jakin batzuetan, egoitzaren kudeaketa-defizitak finantzatzeko.

Gastuen aldetik, egoitza-zerbitzuaren beharrianak, funtsean, honako hauetan nabarmentzen dira: langileen jardun handia eta funtzionamendu-gastu oso zurrinak. Hori dela eta, ez du ematen gastuen gutzitzea gutxitzeko tarte, printzipioz, kuantitatiboki garrantzitsua denik.

Beharrezkoa da, halaber, argitzea zein den Nafarroako Gobernuarekiko harremana instalazioen eta eraikinen kontserbazioari dagokionez, batez ere emandako zerbitzuaren kalitatean eta egoitzaren finantza-egoeran eragin handia dutelako. Horri dagokionez, adierazi beharra daukagu zaharren egoitzari atxikitako eraikinerako erreforma- eta modernizazio-plan bat egin beharra dagoela. Gure iritziz finantzarioki bideraezina da inbertsio hori Mankomunitateak bere baliabideekin egitea.

Halaber, zehaztu behar dira zein diren egoitzako zuzendariaren eginkizun eta eskumenak, eta haiek zein artikulazio duten Mankomunitatearen egitura hierarkiko eta administratiboan.

Bestetik, Mankomunitate horren xedea, gaur egungoa behinik behin, ia soilik laguntza-zerbitzu hori ematearena da; hori dela eta, ez litzateke baztertzekoa izanen prestazio horren egungo egiturazko juridikoa aztertzea, eta areb haren izatea bera aztertzea ere. Mankomunitatea desegitekotan, eta eraikinak Nafarroako Gobernuaren jabetzakoak direnez, azter liteke egoitza hori zuzenean Eskubide Sozialetako Departamentuaren pean egotea, eta azken horrek zentro bereki gisa kudeatzea.

Bestetik, egun aztertzen ari den Nafarroako udal maparen diseinuak eskualdearen figura planteatzen du, eta eskualdeak, besteak beste, bere gain hartuko luke bere lurralde-esparruko gizarte zerbitzuen prestazioa.

Ignacio Cabeza del Salvador kontu-ikuskatzailea arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarrean dagoen araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2017ko otsailaren 20an

Lehendakaria,

Asunción Olaechea Estanga

PERTSONEN AUTONOMIARAKO ETA GARAPENERAKO NAFARROAKO AGENTZIAK AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK

Kontuen Ganberak Irunberriko Mankomunitatearen 2015eko ekitaldiari buruz egin duen 2017ko otsailaren 7ko behin-behineko txostena dela eta, honako alegazio hauek aurkeztu ditu Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziak:

1.- Txosteneko IV.6 atalari –"diru-sarrerak"– dagokionez:

a) A) azpiatalean, egoitzako prezio publikoak eta itunak direla-eta aitortutako eskubideak (2,81 milioi), txostenean adierazitakoak, ez datoz bat Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziak dauzkan datuekin.

Kontuen Ganberaren txostenak honako hau dio:

- *Hauek dira 2015eko ekitaldiari dagozkion itunengatik aitortutako eskubideak:*
 - *Nafarroako Gobernua-Adinekoen Egoitza: 113.322 €*
 - *Nafarroako Gobernua-Psikogeriatrikoa: 683.612 €*
- *2015eko aurrekontutik, 2015-12-31n, honako kopuru hau gelditzen da kobratzeko: 133.282 €.*

Itunean aitortutako eskubideei buruz Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentzian ageri diren datuak honako hauek dira:

BALIABIDEA	Ebazpena:		Kontzeptua:	Kostua	Tarifa	Ordainketa
PSIKOGERIATRIKOA	Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziako zuzendari kudeatzailea	1053/2015, martxoaren 5ekoa	Urtarrileko ordainketa	61.520,70 €	23.700,55 €	37.820,15 €
PSIKOGERIATRIKOA	Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziako zuzendari kudeatzailea	1251/2015, 17koa	Otsaileko ordainketa	61.520,70 €	22.308,82 €	39.211,88 €
PSIKOGERIATRIKOA	Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziako zuzendari kudeatzailea	1586/2015, 14koa	Martxoko ordainketa	61.520,70 €	23.442,40 €	38.078,30 €
PSIKOGERIATRIKOA	Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziako zuzendari kudeatzailea	2237/2015, 15ekoa	Apirileko ordainketa	61.520,70 €	23.700,55 €	37.820,15 €
PSIKOGERIATRIKOA	Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziako zuzendari kudeatzailea	2778/2015, 15ekoa	Maiatzeko ordainketa	61.520,70 €	23.700,55 €	37.820,15 €
PSIKOGERIATRIKOA	Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziako zuzendari kudeatzailea	3318/2015, uztailaren 17koa	Ekaineko ordainketa	61.520,70 €	23.700,55 €	37.820,15 €
PSIKOGERIATRIKOA	Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziako zuzendari kudeatzailea	35/2015, abuztuaren 19koa	Uztaileko ordainketa	61.520,70 €	23.700,55 €	37.820,15 €
PSIKOGERIATRIKOA	Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziako zuzendari kudeatzailea	716/2015, irailaren 25ekoa	Abuztuko ordainketa	61.520,70 €	23.700,55 €	37.820,15 €
PSIKOGERIATRIKOA	Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziako zuzendari kudeatzailea	1309/2015, urriaren 23koa	Iraileko ordainketa	61.520,70 €	23.700,55 €	37.820,15 €
PSIKOGERIATRIKOA	Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziako zuzendari kudeatzailea	1731/2015, azaroaren 9koa	Urriko ordainketa	61.520,70 €	23.700,55 €	37.820,15 €
PSIKOGERIATRIKOA	Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziako zuzendari kudeatzailea	2883/2015, abenduaren 16koa	Azaroko ordainketa	61.520,70 €	23.700,55 €	37.820,15 €
PSIKOGERIATRIKOA	Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziako zuzendari kudeatzailea	3246/2015, abenduaren 29koa	Abenduko ordainketa	61.520,70 €	23.700,55 €	37.820,15 €
PSIKOGERIATRIKOA, GUZTIRA				738.248,40 €	282.756,72 €	455.491,68 €
EGOITZA	Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziako zuzendari kudeatzailea	914/2015, urriaren 5ekoa	Abuztuko ordainketa	37.154,10 €	18.285,40 €	18.868,70 €
EGOITZA	Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziako zuzendari kudeatzailea	1337/2015, urriaren 26koa	Iraileko ordainketa	37.887,40 €	18.567,81 €	19.319,59 €
EGOITZA	Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziako zuzendari kudeatzailea	2429/2015, abenduaren 2koa	Urriko ordainketa	37.887,40 €	19.290,66 €	18.596,74 €
EGOITZA	Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziako zuzendari kudeatzailea	2884/2015, abenduaren 16koa	Azaroko ordainketa	37.836,89 €	18.819,91 €	19.016,98 €
EGOITZA	Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziako zuzendari kudeatzailea	3232/2015, abenduaren 29koa	Abenduko ordainketa	37.887,40 €	18.623,52 €	19.263,88 €
EGOITZA, GUZTIRA				188.653,19 €	93.587,30 €	95.065,89 €
GUZTIRA				926.901,59 €	376.344,02 €	550.557,57 €

Honako hauek dira Egoitzak 2015-12-31n kobratzeko daukanari buruz Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentzian ageri diren datuak:

PSIKOGERIATRIKOA	Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziako zuzendari kudeatzailea	2883/2015, abenduaren 16koa	Azaroko ordainketa	61.520,70 €	23.700,55 €	37.820,15 €
PSIKOGERIATRIKOA	Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziako zuzendari kudeatzailea	3246/2015, abenduaren 29koa	Abenduko ordainketa	61.520,70 €	23.700,55 €	37.820,15 €
PSIKOGERIATRIKOA, ORDAINTZEKO DAGOENA				123.041,40 €	47.401,10 €	75.640,30 €
EGOITZA	2015-12-31n ordaintzeko dagoena	2884/2015, abenduaren 16koa	Azaroko ordainketa	37.836,89 €	18.819,91 €	19.016,98 €
EGOITZA		3232/2015, abenduaren 29koa	Abenduko ordainketa	37.887,40 €	18.623,52 €	19.263,88 €
EGOITZA, ORDAINTZEKO DAGOENA				75.724,29 €	37.443,43 €	38.280,86 €
ORDAINTZEKO DAGOENA, GUZTIRA				198.765,69 €	84.844,53 €	113.921,16 €

b) Emandako zerbitzuen fakturazio-aldiari dagokionez:

Kontuen Ganberak ordainketa-egunak kalkulatu ditu, ordainketaren egunetik faktura egiten den hilaren azken egunera dagoen aldeari erreparatuta, eta kalkulu hori zuzena da. Ondorioa da Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziak 41,6 egunera ordaintzen dituela adinekoen egoitzako leku itunduak, eta 30,17 egunera, berriz, leku psikiatrikoak.

Erantsi ditugun tauletan, gainera, ordainketa-egunak kalkulatu dira, ordainketaren datatik faktura jasotzen denera dagoen aldeari erreparatuta. Nafarroako Gobernuak faktura jaso eta 30 egunera ordaintzeko betebeharra dauka.

2015eko ekitaldian, ordainketa-aldia, horrela kalkulatu, 26,17 egunekoa izan da leku psikiatrikoetan eta 40,80 egunekoa, berriz, leku geriatrikoetan. Atzerapen horren arrazoia izan daiteke kontratu berri bat zela, baina ezin dugu hori segurtasunez baieztatu.

2015eko eta 2016ko kalkuluak gehitu ditugu:

2015. urtea

Kontratua	Kontzeptua	Fakturaren azken eguna	Fakturaren data	Itxiera-data	Ordainketaren data	Ordainketa-egunak	Fakturatik	
Irunberri	Urtarrileko ordainketa	2015-01-31	2015-02-13	2015/03/06	2015/03/11	39	26	
Irunberri	Otsaileko ordainketa	2015/02/28	2015/03/11	2015/03/18	2015/03/25	25	14	
Irunberri	Martxoko ordainketa	2015/03/31	2015/04/08	2015/04/15	2015/04/22	22	14	
Irunberri	Apirileko ordainketa	2015/04/30	2015/05/05	2015/08/18	2015/05/28	28	23	
Irunberri	Maiatzeko ordainketa	2015/05/31	2015/06/08	2015/06/16	2015/06/24	24	16	
Irunberri	Ekaineko ordainketa	2015/06/30	2015/07/01	2015/07/20	2015/07/30	30	29	
Irunberri	Uztailako ordainketa	2015/07/31	2015/08/05	2015/08/27	2015/09/02	33	28	
Irunberri	Abuztuko ordainketa	2015/08/31	2015/09/03	2015/10/05	2015/10/08	38	35	
Irunberri	Iraileko ordainketa	2015/09/30	2015/10/05	2015/10/26	2015/10/29	29	24	
Irunberri	Urriko ordainketa	2015/10/31	2015/11/04	2015/11/13	2015/11/19	19	15	
Irunberri	Azaroko ordainketa	2015/11/30	2015/12/01	2015/12/29	2016/01/22	53	52	
Irunberri	Abenduako ordainketa	2015/12/31	2015/12/15	2015/12/31	2016/01/22	22	38	
IRUNBERRIKO PSIKOGERIATRIKOA						BATEZ BESTEKOA	30,17	26,17
Irunberriko egoitza	Abuztuko ordainketa	2015/08/31	2015/09/03	2015/10/08	2015/10/15	45	42	
Irunberriko egoitza	Iraileko ordainketa	2015/09/30	2015/10/08	2015/10/28	2015/11/05	36	28	
Irunberriko egoitza	Urriko ordainketa	2015/10/31	2015/11/05	2015/12/17	2015/12/22	52	47	
Irunberriko egoitza	Azaroko ordainketa	2015/11/30	2015/12/03	2015/12/29	2016/01/22	53	50	
Irunberriko egoitza	Abenduako ordainketa	2015/12/31	2015/12/16	2015/12/31	2016/01/22	22	37	
Irunberriko egoitza						BATEZ BESTEKOA	41,60	40,80

2016. urtea

Kontratua	Kontzeptua	Fakturaren azken eguna	Fakturaren data	Itxiera-data	Ordainketaren data	Ordainketa-egunak	Fakturatik	
Irunberri	Urtarrileko ordainketa	2016/01/31	2016/02/15	2016/02/29	2016/03/02	31	16	
Irunberri	Otsaileko ordainketa	2016/02/29	2016/03/04	2016/03/23	2016/03/30	30	26	
Irunberri	Martxoko ordainketa	2016/03/31	2016/04/04	2016/04/15	2016/04/21	21	17	
Irunberri	Apirileko ordainketa	2016/04/30	2016/05/04	2016/05/12	2016/05/18	18	14	
Irunberri	Maiatzeko ordainketa	2016/05/31	2016/06/08	2016/06/17	2016/06/22	22	14	
Irunberri	Ekaineko ordainketa	2016/06/30	2016/07/13	2016/07/28	2016/08/04	35	22	
Irunberri	Uztailako ordainketa	2016/07/31	2016/08/04	2016/08/17	2016/08/18	18	14	
Irunberri	Abuztuko ordainketa	2016/08/31	2016/09/20	2016/09/29	2016/10/06	36	16	
Irunberri	Iraileko ordainketa	2016/09/30	2016/10/04	2016/10/26	2016/11/03	34	30	
Irunberri	Urriko ordainketa	2016/10/31	2016/11/09	2016/11/21	2016/11/28	28	19	
Irunberri	Azaroko ordainketa	2016/11/30	2016/12/14	2016/12/28	2016/12/30	30	16	
Irunberri	Abenduako ordainketa	2016/12/31	2016/12/21	2016/12/31	2017/01/11	11	21	
IRUNBERRIKO PSIKOGERIATRIKOA						BATEZ BESTEKOA	26,17	18,75
Irunberriko egoitza	Urtarrileko ordainketa	2016/01/31	2016/02/09	2016/02/29	2016/03/02	31	22	
Irunberriko egoitza	Otsaileko ordainketa	2016/02/29	2016/03/07	2016/03/23	2016/03/30	30	23	
Irunberriko egoitza	Martxoko ordainketa	2016/03/31	2016/04/01	2016/04/19	2016/04/21	21	20	
Irunberriko egoitza	Apirileko ordainketa	2016/04/30	2016/05/05	2016/05/11	2016/05/18	18	13	
Irunberriko egoitza	Maiatzeko ordainketa	2016/05/31	2016/06/06	2016/06/10	2016/06/15	15	9	
Irunberriko egoitza	Ekaineko ordainketa	2016/06/30	2016/07/06	2016/07/26	2016/07/28	28	22	
Irunberriko egoitza	Uztailako ordainketa	2016/07/31	2016/08/04	2016/08/17	2016/08/18	18	14	
Irunberriko egoitza	Abuztuko ordainketa	2016/08/31	2016/09/05	2016/09/16	2016/09/22	22	17	
Irunberriko egoitza	Iraileko ordainketa	2016/09/30	2016/10/04	2016/10/18	2016/10/28	28	24	
Irunberriko egoitza	Urriko ordainketa	2016/10/31	2016/11/04	2016/11/21	2016/11/28	28	24	
Irunberriko egoitza	Azaroko ordainketa	2016/11/30	2016/12/01	2016/12/14	2016/12/22	22	21	
Irunberriko egoitza	Abenduako ordainketa	2016/12/31	2016/12/19	2016/12/31	2017/01/11	11	23	
Irunberriko egoitza						BATEZ BESTEKOA	22,67	19,33

Ikus daitekeen bezala, 2016. urtean, faktura jasotzen denetik 30 egunera ordaintzeko ezarrita dagoen betebeharretik oso behera dago ordainketa-aldia.

2.- Txosteneko IV.7 atalari –"ibilgetua"– dagokionez:

a) Higiezinaren erabilerarako lagapena formalizatzea falta da.

Mankomunitateak Nafarroako Gobernuari egoitza kokatuta dagoen lursailak laga zizkiola egiaztatzen duten agiriak badaude ere, ez dago jasota inongo agiririk dagoenik non Nafarroako Gobernuak Irunberriko Zerbitzuen Mankomunitateari eraikin horien erabileraren lagapena egiten dion.

Gai hori agerian jarri zen Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziak eta Irunberriko Zerbitzuen Mankomunitatea osatzen duten udaletako ordezkarien artean berriki izandako bileran, eta bi aldeek adostu zuten 2017an behar diren izapideak egitea Mankomunitatearen aldeko erabilera-lagapena formalizatzeko. Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziak Mankomunitateari egindako erabilera-lagapena formalizatuta, ondasunen inbentario bat eginen da. Ondasun horietatik gehienak Nafarroako Gobernuarenak dira, zeren eta, Ganberak bere txostenean dioen bezala, egituran eta ekipamenduan egin beharreko inbertsioak, salbuespenen bat kenduta, Nafarroako Gobernuak egiten baititu.

Hori dela eta, egindako gomendioak onartzen ditugu, bai Nafarroako Gobernuak eraikinak eta haien kudeaketa direla-eta egindako lagapena dokumentatzeari dagokionez, aldeetako bakoitzaren betebeharrak eta eskubideak definituz eta zehaztuz, bai eta ondasunen inbentarioa egiteari dagokionez ere.

b) Egoitzako eraikinetan erreformak egiteko jarduketa plana.

Kontuen Ganberaren txostenak agerian jartzen du egiturazko gabeziak badaudela egoitzako eraikinetan, eta gabezia horiek duela zenbait urtetatik honakoak direla. 2009an, erreforma-proiektu bat egin zen, egin beharreko jarduketa nagusiak jasotzen zituena. 1,14 milioi euroko aurrekontua zuen. Txostenak dioen bezala, Nafarroako Gobernuak 2009tik 2016ra 475.058 euroko gastuak egin ditu egoitzan, eta datozen urteetan, aurrekontuetan dagoen diruaren arabera, aurreikusita dauka gainerako erreforma-lanei egitea, hain zuzen ere gabezia horiek zuzendu ahal izateko.

3.- Txosteneko IV.10 atalari –"kudeaketa-adierazleak"– dagokionez:

a) IV.10.1 azpiatala. Mendekotasuna duten hirugarren adinekoen egoitza-leku bakoitzeko gastua.

Txostenaren azpiatal horretan, Mankomunitateak onetsitako tarifak, Nafarroako Gobernuak onetsitako modulua eta Kontuen Ganberak zenbatetsitako gastua alderatzen dira.

Ganberak zenbatetsitako gastua % 2 handiagoa da Nafarroako Gobernuarena baino.

Nafarroako Gobernuak kalkulatuta daukan adinekoen egoitza-lekuaren moduluari dagokionez, esan beharra dago kalkuluak egin zirela Residen programako egoitza guztietarako erabilitako orduko prezioak aplikatuz, bai eta erabiltzaile bakoitzeko gastuak ere; hau da, ez ziren kalkulatu Irunberriko Mankomunitateren egoitzaren kostu errealean arabera. Nolanahi ere, publizitaterik gabeko esleipen-prozedura negoziatua denez, egoitzak adostasuna adierazi zuen proposatutako modulua dela eta.

b) IV.10.2 azpiatala. Leku psikogeriatriko bakoitzeko gastua.

Kasu honetan, Kontuen Ganberak zati sozialaren eta zati sanitarioaren kostua dela-eta egindako zenbatespena xehakaturik ez dagoenez, ezin dugu jakin zeri zor zaion estimazioen eta Nafarroako Gobernuaren moduluetako kostuen artean dagoen aldea.

Eskubide Sozialetako Departamentuaren moduluari psikogeriatriko moduluari dagokionez (2.050,69 €), adinekoen egoitzakoarekin gertatzen denaz bestera, egoitzako kostu errealean (langile-gastuenak) arabera kalkulatu zen, "bestelako gastuen" zenbatespen bat eginda, betiere kontuan hartuta azken lau urteetan egiazki izandako gastuak eta egoitzarekin adostuta datu horien zati bat nola egotzi behar zaion zentro psikogeriatrikoari eta beste zatia, berriz, adinekoen egoitzari.

c) IV.10.3 azpiatala. Bestelako adierazle batzuk

Azkenik, langile-ratioei buruzko lerrokadan, honako hauek hartu behar dira kontuan:

Adinekoen egoitzako zuzendaria eta egoitza psikogeriatrikokoa bat da; hori dela eta, itunari begira, % 75 adinekoen egoitzari eta % 25 egoitza psikogeriatrikoari egozten zaie.

Gizarte-langilea: Psikogeriatriako lekuen baldintza-orrietan, eskatzen zen 0,66 langile baliokide eskatzen ziren; horietatik 0,17 langile baliokide leku psikogeriatrikoei eta 0,49, berriz, adinekoen egoitzari egotzi zitzaizkien. Une horretan kontuan hartu zen okupazioa mendekotasunik ez duten 59 lekuena izan zen: 28 mendekotasunik ez zuten pertsonak ziren eta 30, berriz, psikogeriatriako erabiltzaileak.

-Adinekoen egoitzako kontratuan, mendekotasuna dutenentzako ratioa erabiltzaile bakoitzeko eta urteko 6,66 orduena zen, eta mendekotasunik ez dutenen kasuan, berriz, erabiltzaile bakoitzeko eta urteko 8,49 orduena. Une honetan, egoitzako erabiltzaileetatik 61 mendekotasuna dutenak dira eta 18, berriz, mendekotasunik ez dutenak.

- Adinekoen egoitzako betekizunak, erizaintzako, fisioterapiako, terapia okupazionalako, gizarte langileetako, aisiako laguntzaileetako eta zaintzaileetako profilei dagokienez, erabiltzaile eta urte bakoitzeko orduen arabera dira, eta mendekotasuna dutenen ratioa eta mendekotasunik ez dutenena desberdina da. Hori dela eta, kontratua betetzen den ala ez jakiteko, jakin beharra dago urte guztian zehar zenbat diren mendekotasuna dutenak eta zenbat mendekotasunik ez dutenak, zeren eta betekizunak horren arabera baitira.

Iruñean, 2017ko otsailaren 15ean.

Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziako zuzendari kudeatzailea:
Inés Francés Román

PERTSONEN AUTONOMIARAKO ETA GARAPENERAKO NAFARROAKO AGENTZIAK (ESKUBIDE SOZIALETAKO DEPARTAMENTUA) AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI KONTUEN GANBERAK EMANDAKO ERANTZUNA

Aipatutako alegazioak jaso ditugu, eta behin-behineko txostenaren edukian eraginik ez dituztenez, txosten hori behin betikotzat jotzea erabaki dugu.

Dena dela, zehaztapen hauek egin nahi ditugu:

- a) atalari buruzko lehen alegazioa. Ganbera honen txostenean jasotako datuek bai Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziaren diru-sarrerak, bai Osasun Departamentuarenak hartzen dituzte. Alegazioan, lehenengoak baizik ez dira jaso.
- b) atalari buruzko lehen alegazioa. Ganbera honek ordainketa-epeari buruz egin dituen kalkuluekin bilatutako helburua zen, funtsean, aztertzea zer eragin izan dezakeen atzerapen horrek egoitzaren diruzaintza-egoera zailean; helburua ez zen, beraz, ordainketaren legezko epea betetzen den aztertzea.
- Hirugarren alegazioa. Hartan aipatzen den bezala eta txostenean jaso den bezala, Ganbera honek kalkulaturako ratioak taxutu dira kontuan hartuta bai ematen dituen bi zerbitzuetako bakoitzean egoitzak duen aurrekontu-gastu erreala, bai egiazko langile baliokideen zenbatespen bat ere.

Iruñean, 2017ko otsailaren 20an

Lehendakaria,

Asunción Olaechea Estanga

